


Arrasate

PRESES

1880ko
Azaroak 13
1928. zomb.

Haurren eskubideen alde





Azarokak 21

HAURREN AHOTSA 

Zure seme-alabek zeregin garrantzitsua izango dute.



1 Nortasuna

Naizen moduan errespetatua izateko eskubidea, nire nortasuna garatzekoa, nire sinesmen eta tradizioen arabera bizitzekoa.



7 Babesa

Nire gorputza eta nire sentimenduak mindu ez diezazkidaten eskubidea, tratu txarrik, laidorik, edota sexu-abusurik ez izatekoa, zapaldua ez izatekoa.

2 Familia

Maite eta orientatzen nauen familia batean bizitzeko eskubidea, gurasoekin batera jarduerak burutu eta haiengandik bereiztua ez izatekoa, nire ongizaterako beharrezkoa ez bada behintzat.



8 Partehartzea

Informazio egokia jasotzeko eskubidea, beste haur batzuekin bildu eta parte hartzekoa, eta nire iritziak aintzat hartuak izan daitezen.



3 Osasuna

Zainketa medikuak izateko eta bizitza-aztura osasungarriak garatzeko eskubidea, drogetatik libre eta kutsatu gabeko leku atsegin batean bizitzekoa.



9 Ongizatea

Nire gurasoek ni duintasunez garatu eta bizitzeko behar besteko baliabideak eskuratu ahal izateko eskubidea.

4 Hezkuntza

Besteekin batera bizitzen ikasteko eta hobea izateko hezkuntzarako eskubidea, zorionsu naizen eta ikasteko gogoz joaten naizen eskola bat izatekoa.



10 Bakera

Indarkeriarik gabeko gizarte baketsu batean bizitzeko eskubidea, elkartasuna, tolerantzia eta adiskidetasuneko izpiritu batean hezitzekoa.



5 Jolasa

Jolasteko denbora, lekuak eta jolaskideak izateko eskubidea.



11 Haurrak aurretik

Erabakiak haurren premietan oinarrituta har daitezten eskubidea.

6 Berdintasuna

Diskriminatua ez izatekoa eskubidea eta trataera eta atentzio bereziak jasotzekoa, behar izanez gero.



12 Elkartasuna

Herriek munduko haur guztien garapenean lagun dezaten eskubidea.



Haurrek beren eskubideak aukeratuko dituzte. **Bozkatu!**



Hauteskunde ostea hamar ataletan

1. Hauteskundeetako partehartze altuak egoeraren berezitasuna adierazten du. Ilusioa izango da edo beldurra, itxaropena edo zalantza. Dena batera, akaso. Baina herri honetan jendeak badaki une erabakigarria bizi dugula eta erne egon beharra dagoela.

2. Lizarrak ez du irabazi, botoen %60 lortuta ere. Ermuak ere ez, eta gainera %40an gelditu da. Denek espero zuten gehiago. Horregatik ez dago irabazlerik.

3. Alderdi abertzaleek urrats handia egin dute. Madrilgo alderdien eta komunikabideen tirakadari ondo eutsi diote, borroka gaiztorako gerri ona erakutsiz. EAEn



Mikel Irizar

Ermuan oinarritutako gobernurik ez da posible. Lizarran oinarritutakoa ez litzateke ona

gehiengo ona dute. Erabiltzen jakin behar.

4. EAJK eta EAK elkartzea beste erremediorik ez dute. Bien artean ez dira lehen batera zirena, eta batak galtzen duena ez du besteak irabazten. EAK amildegia bistan du eta EAJK sabaia.

5. EHk eta PPK mezu bera jaso dute: "Zuei dagokizue lanik handiena; zuek behar duzue indarririk handien".

6. Hautesle ez abertzaleak tinko agertu dira. Seguruena ez dute batzuek nahi adina beldur, baina badakite non dagoen beren indarra. Jirabueltekin nahastu gabe, zuzen asmatzen dute non dagoen La Meca.

7. PSEk hanka sartu du. PP baino espainolago agertzeak ez dio botorik eman, ez eta emango ere. Babesa behar duenak gobernuarengana joko du beti. Egiguren eta, izkutuan

egon dira, ea orain zer. Baina Madrilgo eta Gasteizko gobernuetatik kanpo hotz handia egingo du aurtengo neguan.

8. Ermuan oinarritutako gobernurik ez da posible. Lizarran oinarritutakoa ez litzateke ona. Bakea ez da Gasteizko gobernuan mamituko, gobernuaren lana bakegintza babestea izango da. Ez da komeni eztabaidan parte izango den gobernurik.

9. EAeko gehiengoak bere etorkizuna erabakitzeke ahalmena nahi du eta hori bake opilaren osagaietan oinarritutakoa izango da, halaberrez. Baina EAEn gutxiengo handia dago Espainiako gehiengoari begira, Zumosoleko lehengusua bailitzan. Luze eta zabal hitz egin beharko da hurrengo garaietan.

10. Hauteskundeetan ohikoa denez, arin egin da berba, arinegi. Baina inork ez du ezer apurtu nahi izan, ez da inolako boikotik izan. Horrela Lizarrakotik bi hilabete datozenean, bakebidea sendotu egin da. Ez da gutxi.

"Emakumeek munduan egiten den lanaren %60 egiten dute, baina sortutako irabazien %10 baino ez dute jasotzen eta lantzeko lurren %1 bakarrik da eurena"

Jesus Larrañaga

17

Km. bidegorri daude Gipuzkoan

Arrasateko Lurrats taldeak Gipuzkoako beste hogeitau inguru elkarterekin batera, *Lehen-bizi* izena duen elkartea sortu du, Gipuzkoan zehar bidegorri sare bat egin dadin, bizikletaren erabilera bultzatze aldera. Lurrats 1994an sortu zen.

ITURRI ONETIK

Taxistak kooperatibazale

Arrasaten 11 taxista daude. Denak joaten dira geltokira, baina askotan gertatzen da telefonoz deitu edo hara joanez gero inor ez aurkitzea. Zer dela eta? Lan gehiena enpresentzat egiten dutenez, kooperatibentzat bereziki, egunaren ordu asko errepedean egiten dituztelako. Horregatik, geltokikoaz gain, bakoitzak bere telefona darama taxisean.

Taxistek esaten dutenez, kooperatibei esker egiten dute lan hamaika taxistek. Enpresentzako lana kenduz gero, hiru taxirekin soberan izango genukeela kalkulatu dute, arrasatearrok ez baitugu ohiturarik taxia erabiltzeko. Hori dela eta, taxizaleek argi adierazten dute poztu egiten direla kooperatibak ondo doazela irakurtzen dutenean.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate)
Komunikabideak Oñalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 85. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjoo Deogracias, Ubane Masera, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitzin Alende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26). **Diseinua:** Txos Azurmendi. **Astoburuetako berri-maileak:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirre, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Besalde M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amalia Jauregi-Arraburu, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Maitilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Latona, Karmele Perez, Kepi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreira. **Banaketako arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 13**
• Gauzez eta eguna: Ruiz, Maala
- Larunbata, 14**
• Gauzez eta eguna: Morales, San Andres
- Igande, 15**
• Gauzez eta eguna: Azkoaga, Ferrerías
- Astelehena, 16**
• Gauzez eta eguna: Español, Iturriotz
- Astearte, 17**
• Gauzez eta eguna: Korkuera, Musakola
- Asteazkena, 18**
• Gauzez eta eguna: Irizar, Erguin
- Osteguna, 19**
• Gauzez eta eguna: Amezua, Santa Marina

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00
Iguaitorioa 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurtze Gorria**
Bergara 943 76 55 76
- DYA**
Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) 943 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 77 03 46
• Espezialitateak 943 77 05 78
Onati 943 77 12 64
Eskoriatza 943 78 08 52
Aretxabaleta 943 79 98 58
Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulanziazki 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Onati 943 78 04 11
Bergara 943 76 14 69
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
943 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**
KIUB-OMIC 943 79 51 55
- Monterron liburategia**
Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia 943 79 58 77

KANPOSANTU KONTUEK

Atzo, zemendixek 8, "Mugarriz mugarri... Arrasate ezagutzen" bigarren etapie (Mugarri-Murugain-Gesalibar-Lurgorri-Besaide-Garagartza) egin geuen. Urrixen 25ien, lehen etapan (Kataide-Etxezarreta-San Prudentzio-Bakue-Andra Mari Zuri-Bedoña-Mugarri), eguraldixe nahiko kontra euki geuen, baiñe etzo ez, atzo oso alde. Edozein moduten, ez noie hemen atzoko ibilladixe kontetan. Atzoko kronika zuzen eta zihetza egiten Itxaro Artolari itxiko deusau, bera da periodistie eta.

Nik beste kontu baten gainen jardungo dot. Hara. Bagentozen Murugaindik behera, eta Gesalibarko kanposantuei begire, nik komentau neuen kanposantue Aramaixoko lurretan dauela. Orduen, gauza kuriosue pase-tan dala: jaixo eta bizi Gesalibarren (Gipuzkuen) eta betiko lue Aramaixon (Arabán). Batzuk ez etozen nirekin bat, eta biherbada arrazoiz. Begiketako, begiketako nun euen probintzia bixek banaketan zittuen mugarrix, harek garbi erakusten dauela nundik goiezen mugak. Nik esango neuke, dana dala, mugarri hori lehen beherau euela, justu *Konfiñe*-ko bihurtunien. Beste alde batetik, mapak begiraketan ibili naz, eta bai Gipuzkoako Diputaziñuek ataratako 1:5000 eskalako mapan eta bai aurki Arrasateko Udalak argitaratuko dauen herriko mapan kanposantue Araban dator betebetien.

Atzo eguerdixen etxera allegau nitzenien (egixe esanda, nahiko kantzauete, ahuntzek moduen ibiltie ahuntzendako da eta), gurasuei preguntau neutsien horren gainen, eta bixek (bai amak eta bai aitek) esan euen euren

entzueran muga kanposantu erdittik pasetan dala. Falta zana! Hau egixe bada, orduen ez dau kuidaunik, auzokuek behintzet Gipuzkuen geratuko die, justu hemendikaldeko horman enterretan die eta.

Ni, edozein moduten, ez naz larregi fixetan. Horregaittik, agindude emunde dauket: hiltten nazenien (baiñe ez pentzau hiltteko gogoe dauketenik: hurrengo 100 urtien behiñepheñ ez dauket horretarako asmorik), haustu eta etxe ondoko keixa arbolan orpuen bota, ia atzetik datozenak keixa gehixau jaten dauen. On egin!

Eta akabetako, horra azken berbak. Urrixen 25eko 19 balientiek 26 bihurtu gara zemendixen 8xen; ia 22xen 40 bat garen; gainera, akaberie bazkari eder batekin emungo dausau. Jan-edarixek, barriketie, kantue ta umorie ez da faltako. Animo, ba!

Txipi Ormaetxea

GERO ARTE, XANTI!

Ez dakit nola hasi, ez dakit nola esan barrutik darabim; agian esan gure Erreala irabazten zegoela joan zinela eta Euskal futbolaren jaian gure betiko aurkariari irabazten bukatu genuela.

Eta jaia zen, baina bat-batean joan zinen eta jaiak, jaia izateari utzi zion, zuk, gure Xanti lagunak, utzi gintuzulako. Zuk zenuen bihotz handi hura, horrenbeste ezagutu genuen bihotz handi hura gelditu egin zen, baliteke lan asko egin izanagatik; horrenbeste gauza polit oparitu zigun zure bihotz handi horrek, azkenean agortu egin zen.

Xanti ezagutu duenak jakin badaki Errealeko jarraitzaile sutsua izan dela, horixe baietz, baina horretaz gain, abertzale handia izan da; herriarekin, lagunekin eta fami-

liarekin maitemindua egonda. Beti izan ditu gogoan presoak, errefuxiatuak eta gure herriak bizi duen egoera soziopolitikoak, inoiz ere alde batera utzi gabe, bere itxaropena gure herri hau aske ikustea baitzen, guztiok bizi gintezkeen herri aske batean bizitzekoa.

Zuk Xanti, zure lana egin duzu eta hemen gelditzen garen egiteke dagoenarekin jarraituko dugu, inoiz baino gogo handiagorekin, zeren zuri eta zure ilusio berdinak izan dituztenei zor dizuegulako. Egunen batean, eta ziur ez dela oso urruti gelditzen, Bonba, Agus, Javi... besteen artean, gure euskal selekzioarekin ofizialki jokatzeko, gure euskal preso eta errefuxiatuak etxean ditugula, eta gure Euskal Herria aske dagoela, *Bonba, Bonba*, oihuarekin ospatuko dugu, zure omenez eta maite izan ditugun guztien omenez.

Garai hori heltzen den bitartean, zu gurekin egongo zara, Anoetan, kalean eta borrokan, beste bat bezalaxe, zuk gure bihotza eta laguntasuna irabazi diguzulako. Guztion artean gol hori sartuko dugu, eta gol hori... *la bonba* izango da.

Gora Gu Ta Gutarrak
Gora Bonba Taldie
Aurrera Bolie!

Bihotzez (Bonba Taldie)

INO GALPARSORORI OHARRA

Bere gutunaren balorazioetan sartu barik, zuzenketa bat egin nahi diogu Ino Galparsorori. Berak esaten duenaren kontra, eman genuen urriaren 19ko osoko bilkura bereziaren berri, *Arrasate Pressen* 425. zenbakian. 11. orrialdean dago, Astearren Errepasoan, eta "Alperrikako osoko bilkura" du izenburu.

Arrasate Presseko Zuzendaritza

Zein da haurren eskubiderik garrantzitsuenena?

Azaroaren 21ean Unicef-ek eratutako Haurren Bozketa egingo da.



Cris Hernández
(31 urte)
Langilea

Bada, ez dakit. Babesa edukitzeko eskubidea, agian.



Isabel Urzelai
(40 urte)
Langilea

Familia edukitzeko eskubidea. Garrantzitsua da. Eta gero, euren eskubideak eta nortasuna errespetatu behar dira. Pertsonak direlako.



Andoni Ariño
(5 urte)
Ikaslea

Jolastea. Asko gustatzen zait jolastea.



Lide Ansuategi
(5 urte)
Ikaslea

Jolastea.



Antton Gutierrez
(59 urte)
Langilea

Nortasuna. Bakoitzak bere pentsamendu eta iritzia du.




Jurgen Barrionuevo
(9 urte)
Ikaslea

Hezkuntza. Eskolara gogoz bazoaz, hobeto ikasten duzu.



Maddi Gonzalez
(9 urte)
Ikaslea

Berdintasuna. Nire ustez denak berdinak izan behar gara. Ez da inporta norbait gaixoa edo, izatea.



Jose Mari Baztarrika
(43 urtea)
Langilea

Familia. Eta familiaren barruan, oso garrantzitsua da maitasuna eta ondo hezitzea.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Etxean gaixoren bat badaukazu, zuri laguntzeko prest gaude

- Ohe artikulatuak
- Zirkulazioa eragiteko koltxoiak...

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



DISCOPOLIS

DISKO KONPAKTOAK • KASETTEAK • BIDEOAK • OSAGARRIAK
BERRIKUNTZAK ETA KATALOGO ESKAINTZA ZABALA

Juan Carlos Gerra plaza, 1 behea • ARRASATE

Tel.: 943 - 77 02 13

Arrasate

LANAK

OTALORAN

Pilotalekuaren inguruan kamioiak arituko dira.

URIBARRIN


Uriburu kalean eskailerak egiten ari dira.

KONTZEZIÑO KALEAN

Lanean jarraitzen dute.

AZATZA ETXEETAN

Jose Luis Iñarra eta Feri-xaleku ostean egiten ari diren pasealekuaren lanak ez dira amaitu.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 13



LARUNBATA 14



IGANDEA 15

Lainoak areagotuko dira egunean zehar. Tenperatura igo egingo da eta haitzeak mende-baldetik joko du.

Zerua oso lainotua egongo da eta tarteka euria egingo du. Tenperatura jaitsi egingo da.

Lainoak areagotuko dira eta euria ere egingo du. Tenperatura asko jaitsiko da eta haizeak Iparraldetik joko du.

Ilargia



Ilberria

Azaroaren 19an, osteguna, eta Laida, Felix eta Silbestretreren egunean, ilberria izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santa Teresa


Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean

10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%93,1




Distantziak

Arrasate

| | | | | | | | | | | | | |
|-------|--------|------------|-------|---------|----------|---------|--------|--------|-------|--|--|--|
| 121 | Baiona | | | | | | | | | | | |
| 690 | 579 | Bartzelona | | | | | | | | | | |
| 57 | 170 | 620 | Bilbo | | | | | | | | | |
| 1.159 | 1.038 | 2.883 | 1.207 | Brusela | | | | | | | | |
| 72 | 50 | 529 | 119 | 1.088 | Donostia | | | | | | | |
| 40 | 180 | 530 | 66 | 1.206 | 118 | Gasteiz | | | | | | |
| 107 | 120 | 437 | 159 | 1.180 | 92 | 93 | Iruñea | | | | | |
| 391 | 519 | 621 | 395 | 1.556 | 469 | 351 | 407 | Madril | | | | |
| 864 | 743 | 1.113 | 911 | 296 | 792 | 910 | 884 | 1.260 | Paris | | | |

*Haize indartsuenei aurre egiteko
temperatura hotzenak ondo eramateko
beti gailurrera heltzeko prest egoteko
haien azalean jarri beharra dago.*

Eta horixe da, hain zuzen, egin duguna.

TERNUA 

KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT

Kontzezino kalea, 8 • Tel.: 943 79 46 12 • 20500 ARRASATE


ARRASATE
KIROLAK

13

ostirala

■ ZINEA

Secuestro, Alai zinemán, 22:00etan.

14

larunbata

■ ZINEA

El Hombre que susurraba a los caballos. Alai zinemán, 19:00etan eta 22:00etan.

■ MUSIKA PARROKIAN

San Joan parrokian Sara-jevoko Bjelave umezurtz-
-etxearen aldeko kontzertua eskainiko du Juan Luis Anasagasti tenoreak, Jaime Lazkano de Butron pianojolearekin batera. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan izango da, dohainik. Jasotzen den dirua borondatezkoa izango da.

■ ARDIA ETA BUZKANTZAK

Arrasateko Alkartetxean urtero egiten den ardi eta buzkantza bazkaria egingo dute.

■ MUSIKA CAFE-PIANOAN

Juan Luis pianojoleak piano emanaldia eskainiko du Mondragon Hotelean. Emanaldia 23:00etan izango da.

15

igandea

■ ZINEA

El Hombre que susurraba a los caballos. Alai zinemán, 19:00etan eta 22:00etan.

■ MENDI IRTEERA

Karrantza-Turtziora mendi irteera antolatu du Besaide Mendizale elkarteak. Irteera Garibai kaletik egingo da, goizeko 07:00etan.

■ MONUMENTU MEGALITIKOAK

Eskoriatzako monumentu megalitikoak ezagutzeko ibilaldia egingo da, Puntiaga, Asuntzeta eta Degurixa artean. Irteera goizeko 08:45etan. Ibilaldia Luis Ezeiza Guraso Elkartek eta Museo Eskolak antolatu dute.

■ MENDI BIZIKLETA

Txurdaren omenez mendi bizikleta antolatu dute. Irteera Arrasateko plazatik egingo da, goizeko 09:30etan.

■ ARTISAU LANGINTZEN AZOKA

San Millixaneko artisau langintzen azoka antolatu da Leintz Gatzagan. VI. feria pilotalekuan eta Markole plazan jarriko da.

■ JUAN LUISEN PIANOAN

Mondragon Hoteleko Cafe-Pianoan arituko da Juan Luis pianojolea, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

16

astelehena

■ ZINEA

El Hombre que susurraba a los caballos. Alai zinemán, 19:00etan eta 22:00etan.

■ EUROA MINTZAGAI

Euroa: diru bat Europarentzat izeneko hitzaldia antolatu du Amuska elkarteak. Hitzaldia Eskoriatzako kultura etxean izango da, arratsaldeko 18:30etan. Hitzaldia Ikasketak Europarren Zentruko kidea den Felix de Blasek eskainiko du.

17

asteartea

■ ZINEA

El Hombre que susurraba a los caballos. Alai zinemán, 19:00etan eta 22:00etan.

18

asteazkena

■ OROIMENA HIZPIDE

Oroimena ulertzeko klabeak izenburupean hiltzadia antolatu dute Axtrokikoek. Hitzaldia Eskoriatzako kultura etxean izango da, arratsaldeko 18:00etan. Hizlaria, Elena Iraolagoitia izango da.

Rock jaialdia adierazpen askatunaren alde

Ostiralean, 22:00etan.

Datorren ostiralean, azaroak 13, "Adierazpen askatunaren aldeko kontzertua" egingo da. Arrasateko kiroldegian SA, EKON, KOMA eta *Iskanbila* taldeek parte hartuko dutelarik. Orain dela hilabete batzuk *Egin* egunkaria eta irratia itxiarazi zituztenetik, ahots ugari altxatu eta lerro ugari idatzi dira Frankoren garaitik ematen ez zen gertaera horren inguruan. Arrasateko gazteriak ere zer esanik dugulako, kontzertu hau antolatu dugu Gaztetxearen izenean jendeak erantzungo duelakoan eta herri ooren oinarritzko eskubidea (Adierazpen askatasuna, alegia) zapalkuntza hau denon artean salatuko dugulakoan.

Zentsurarik ez.

A.G.A.K.O.

19

osteguna

■ IRRINTZIA AZTERGAI

"Irrintzia, gure herriaren oihua" hitzaldia eskainiko du Gerarta Arotzenak Eskoriaztako kultura etxean. Hitzaldia Axtrokik antolatu du eta arratsaldeko 18:00etan izango da.

■ PIANO EMALDIA

Juan Luisek beste emalaldi bat eskainiko du Cafe-Pianoan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00ak arte.

■ UDALAREN OHARRA

Udalerrri honetako zergadun guztiei jakinarazten zaie, 1998ko hirugarren hiru-hilabeteko Ur eta Zabor-Zergaren ordaingiriak abenduaren 30a arte borondatezko epean ordaindu daitezkeela. Epe hori pasa ondoren, ordaindu gabe dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

■ LANDARE ETA LORE ZAINKETA IKASTAROA

Jakoba Errekondok eskainiko duen landare eta lore zainketa ikastaroaren hurrengo saioak azaroaren 24an eta abenduaren 1ean izango dira. Biak ere, Gesalibar auzoko Jentil-Ola elkartearen izango dira, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Ikastaroa Ekin emakume elkarteak antolatu du, Arrasateko Udaleko Emakume Sailaren laguntzarekin.

■ ARIZMENDIARRIETA LEHIAKETA

Gizabide fundazioak Arizmendiarrieta XIII. lehiaketa antolatu du, "Amets bat eraikiz" lelopean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Euskal Herriko ikasleek ezezik, Ez-Derrigorrezkoek ere har dezakete parte. Honela, DBHkoek narrazio-informazio generoko testuak aurkeztu beharko dituzte eta ez-derrigorrezkoek, berriz, saiakera generoa landu beharko dute. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 17an amaituko da eta Gizabidera zuzendu beharko dira. Berri gehiago, 943 79 31 32 zenbakian.

■ ERTAMERIKARI LAGUNTZA

Komite Internazionalistak elkartasunerako mugimenduak, laguntza jasotzeko kontu bat zabaldu du kaltetuen alde. Kontu zenbakia Euskadiko Kutxako 3035 01 34 40 134.0.01973.8 da.

■ MUGURUZA AMAIAN

Azaroaren 21ean, larunbata, Xabier Muguruzak "kultura errota" musika emanaldia eskainiko du Amaia antzokian. Emanaldia gaueko 22:00etan hasiko da.

■ BELDURREZKO MARATOIA

Datorren ostiralean, hilak 20, izango da fantasia eta beldurrezko zine maratonia Amaia antzokian 22:00etatik aurrera. Aurkezlea Tinieblas Gonzalez izango da, eta sarrera 600 pta kostako da. Filmak honako hauek izango dira: Por un infante difunto, Stephen King's the night flier, How to make love to a woman, Sex & violence, Once upon a time in China and America, Progeny.

■ ARGAZKI ERAKUSKETA

Pertsonen kontrako minei buruzko argazki erakusketa irekiko da Harresi aretoan datorren asteazkenean, azaroak 18. Lanak Gervasio Sanchezenak dira, eta erakusketa ordutegia honako hau izango da: egunero 18:00etatik 20:00etara eta larunbat eta jaiegunetan berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

■ MARGO ERAKUSKETA

Felix Ayalak pintura erakusketa jarriko du azaroaren 20tik abenduaren 5era bitartean. Bere margolanak Harresi aretoan egongo dira ikusgai.

FEMUR

Ferreteria Murgiondo, S.L.

NEGOZIOA SALGAI

Interesatuok deitu:

943 78 06 65/943 27 85 43 (19:00-21:00)
943 78 21 95

Kale-zaharra, 62 • OÑATI

USTEAK USTE

Bidegorriak

Lau urte pasatu dira Elbar-Gasteiz autobidearen proiektua zela eta, Interbentzio Gune Partehartzaileak antolatu zirela, herritarrek jakin zitzaten komunikabide horren inguruko alde onak eta ez hain onak.

IGPak zirela eta, autobidearen ez alde eta ez kontra ez zegoen altermatiba bat aurkeztu zuen Arrasaten propio eraturako Lurrats taldeak: garai batean Deba Garaia zeharkatzen zuen burdinbidea oinez edo bizikletaz ibiltzeko moduan jartzea. Berau izan bide zen adostasun handiena jaso zuen proiektua. Autobidearen aldekoek zein aurkakoek onartu egin zuten. Lau urte igaro dira eta ez da ezertxo ere egin.

Orain, berriz, Bergara-Soraluze tartea hastekotan denean, bizikletazaleek berriro ere indarra egitea erabaki dute, inork ez dezan ahantzi 94an onartutakoa. Gipuzkoako beste hainbat elkarterekin batera Lehendabizi sortu dute, Gipuzkoan zehar bidegorri sare bat egin dadin. Ea noiz gauzatzen den.

Joxe Aranzabal



Herri komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak

Aitor Orobengoa*

Aurten hamar urte beteko dira Arrasate Press lehenengo aldiz kaleratu zenetik. Bere garaian euskarazko herri prentsaren aitzindari izan zenak baditu gaur egun berrogeita hamarretik gorako bidelagun eta denon artean 450.000 irakurle inguru.

Arrasateko etxe askotan euskara hutsean irakurtzen den hedabide bakarra da Arrasate Press. Beldur barik esan genezake, beraz, lan handia egiten duela euskararen normalkuntzan. Hori betetzeko hiru zutabe izan ditu: irakurlearekiko hurbiltasuna, diseinu zaindua eta euskararen tratamendu zuzen eta duina.

Jorratutako bidea luzea izan da eta munduan "hizkuntzaren bigarren iraultza"rekin lotuta etorri da. Alegia, Arrasate Pressekin eta bere bidelagunek sortutako eragina lotuta egon izan da hizkuntza nagusietan orain ehundaka

urte irarkolak eragindako iraultzarekin.

Beste hamar urterako bidea

Adituen esanetan, idazketak eragin omen zuen "hizkuntzaren lehenbiziko iraultza". Gaur egun, berriz, "hizkuntzaren hirugarren iraultza" sartuta gaude, elektronikara eta informatikaren eraginez. Iraultza hau erabatekoena izan bide daiteke, informatikaren bitartez jendeak mundu osoko informazioa eskura izan baitezake berehala.

Begibistakoa da eratzten ari den informazioaren gizarte honetan hizkuntzaren zeregi-

na aldatzen ari dela. Teknologia informazioaren izaera aldatzen duen neurrian, nago aldaketa handiak izango direla hizkuntzaren erabilera.

Horregatik euskal gizarteak, herri komunikabideek eta baita euskarak berak ere prestatu beharra dute irarkolaren arotik teknologia berrietara doan bidea. Horra hor datozen hamar urteetarako erronka. Ea, bada, 2009. urtearen bueltan herri komunikabideek beren tokia asmatu eta eragina zabalazten duten

Kalitatea eta informazioaren gizarte

Herri komunikabideek eskubidea dute teknologia digital berriek eskaintzen dituzten aukera berrietan berdintasunez parte hartzeko. Eskubide hori bermatzeko lehiakortasuna erakutsi beharko dute, sortuko diren azpiegiturretan toki bat ziurtatzeko. Erronka horretan ezinbestekoa izango da, teknologiaz gain, herri komunikabideen kalitatea goratzea. Hori izango da irakurleak eta ikusentzuleak irabazteko modua.

Beraz, industrian gertaturikoari jarrituz, euskarazko herri komunikabideek erabateko kalitatea bermatu beharko dute, aipatu dugun lehiakortasuna ateratu daitezkeen. Hortik aurrera, uste dugu argi dagoela Arrasaten egingo ditugun Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldien garrantzia.

* ARKO-ko lehendakaria



BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABAETA

PEUGEOT Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **Angel Iturbe ihes eginda**

ETAK bi egunkaritan jakinarazi zuenez, Angel Iturbe iheslari mondragoetarrak eta Belen Gonzalez Peñalvak ihes egin zuten Santo Domingo uhartetik. Angel Iturbe, Txomin Iturberen anaia gazteenak, bederatzirte eta erdi egin ditu Santo Domingo Karibeko uhartean, hango poliziak zainduta. Arjeleko elkarriketek porrot egin eta gero, eraman zuten Santo Domingora.

■ **Udal parkinareneko adjudikazioak**

Udalak Laubideko parkinean dauzkan 84 aparkalekuak abenduan adjudikatuko ditu. Eskaera orriak eskuragarri daude udaletxean eta abenduaren 12a baino lehen aurreko behar dira. Aparkalekuak urtebeterako adjudikatuko dira printzipioz, bai-

na baliteke epe hau bi urtera luzatzea. Aparkaleku bakoitzarengatik 61.200 pezeta ordaindu beharko da lehenengo urtean. Adjudikatzeke dauden 84 aparkalekuetatik, 62 banakakoak dira, beste bat 20 plazatakoa da eta bestea bikoa.

■ **Baserrirideak**

Barrena Zahar, Arbe eta Miraflores baserrietara iristeko ganorazko bideak egingo dira. Honelaxe erabaki zen joan den asteko Gobernu Batzordean. Bideak zolatu eta saneatzeko proiektua "Kudea CB" enpresak egin du. Orain, aldiz, lanak nori eman erabaki beharko da. Lan hauen aurrekontua 13 milioi pezeta ingurukoa da.

■ **DYAren eguna**

DYA elkarteak, milioi t' erdi pezetako aurrekontuari aurre-

egin behar dio aurten. Hori dela eta, asteburu osoan zehar, herriko haur eta gaztetxoak DYA elkartearen pegatinak saltzen aritu ziren herriko kale nagusienetan. Aurten, gainera, DYAk 25 urte betetzen ditu

■ **Abertzaletasuna aztergai**


Asteartean abertzaletasunaren inguruko mahai ingurua izan zen Monterronen. Zutik taldeak antolatu zuen. Hizlariak Jose Luis Iriarte "Bikila" Zutikekoa, Emilio López Adán "Beltza" eta Gorka Espiau Elkarrikoa izan ziren. Euskal Herriak bizi duen egoera berriak eraginda antolatu du Zutikek mahai inguru hau, egoera berriaren aurrean hausnarketa egiteko abertzaletasunaren inguruan. Horrelako beste lau mahai inguru eratu ditu Euskal Herrian.



“Ezjakintzat definitu izan du bere burua Patzikuk (Perurena) behin baino gehiagotan. Arrasateko Eskola Politeknikoan egin zituen erdi mailako ikasketaren batzuk gaztetxotan, baina hizkuntzak deituta, hura dena utzi eta Leitza bihurtu zuen unibertsitate. Beste jakintza mota bat aukeratu zuen, iraganarekin zerikusia daukana”.

FELIX IBARGUTXI

Etorrerakoak liburuan Ed. Txalaparta



SANTAMASEN HORMIRUDI LEHIAKETA

Santamasetarako hormirudi lehiaketa zabalik dago. Lanak azaroaren 23a baino lehen eman behar dira, udaletxeko Kultura Sailean. Irabazleak 75.000 pezeta irabaziko ditu. Hormirudiak 50 x 70 zentrimetokoak izan beharko dira derrigorrez eta herriaren izena eta ospatzen den jaiaren eguna agertu behar dira. Bestelako guztia, bakoitzaren arabera.

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

UNZUETA JATETXEA

- Okelak eta arrainak parrilan.
- Bakailu frijitua. Etxeko postreak.
- Ospakizunak. Jaunartzeak, bataioak

Zabola auzoa. ARAMAIO. Tel.: 945 44 50 95

Jaiotzak

- Enertiz Pazos Hidalgo. Urriaren 27an
- Marta Jimenez Patzeko. Urriaren 29an.
- Xabier Petrerros Mateo. Urriaren 29an.
- Antton Barrutiabengoa Ortu-bai. Urriaren 29an.
- Ane Rodríguez González. Azaroaren 3an.
- Nerea Goñi Gutiérrez. Azaroaren 3an.
- Oihher Arsuaga Fernández. Azaroaren 5ean.

Ezkontzak

- Jose Antonio Etxarri Vicente eta María Luisa del Padro Villar. Ezlitzaz. Urriaren 31n.
- Juan Antonio Beitia Mondragón eta Leire Urrutia Almandoz. Elizaz. Urriaren 31n.

Heriotzak

- María Concepción Agirre Iriarte..55 urte. Azaroaren 3an.
- Serapia Bergaretxe Urrutia.86 urte. Azaroaren 9an.

Santi Zeziaga hil da

Santi Zeziaga Bolinaga arrasatearra Athletik eta Errealaren arteko igandeko derbia Anoetan ikusten zegoela hil zen, bihotzekoak jota. Lehen zatiaren amaieran gaizki sentitu zen. Ingurukoek Gurutze Gorriari dei egin zioten, baina medikuek ezin izan zuten ezer egin bere bizia salbatzeko.

Bonba Taldeko kide ez izan arren, maiz joaten zen beraiekin partiduetara.

Goian Bego.

Jabier Retegi MCCra itzuliko da, proiektu berriak zuzentzera.

Jabier Retegi gaur egun Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburua dena, oraingo kargua utzi eta itzuli egingo da MCCra. Antonio Cancelok, behintzat, horrela adierazi du taldeko gerenteekin egindako bileretan.

Jabier Retegik itunak egingo lituzke kooperatiba ez diren Euskal Herriko hainbat enpresarekin, gestio sistemak, enpresen nazioarteratzea, berrikuntza eta garapena elkarrekin lantzeko.

Asmo hau ez omen dgo erabat mamiturik. Eztabaidatzen ari da gaur egun. Antonio Cancelo MCCko lehendakaria egun hauetan taldean egiten ari diren barne bileretan azaldu du. Ekonomia-



Antonio Cancelok Retegi ekarri nahi du.

eren globalizazioari hobeto erantzuteko modu bat izango litzateke. Politika honen lehen adibidea izango litzateke Gamesa enpresarekin autogintzan lan egiteko sina-

tu zuen ituna.

Aurten 850.000 milioi pta.ko salmentak izan ditu MCCk. Irabazi garbiak, berriz, 57.000 milioi pta.koak izan ditu. MCCk 40.000 langile ditu gaur egun.

LHTren ibilbide berria prososatu da

Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza ganberek, Lastertasun Handiko Trenaren Ibilbidea aldatzea eskatu dute. Aurkeztutako proiektu berriak, Y itxura izan beharrean, L itxura izango luke. Aurrekoak baino 40 kilometro motzagoa litzateke eta lurpean joango lirateke kilometro guztiak. Era berean, ez luke eragin fisiko zuzenik Deba Bailaran.

Arrasateko alkateak ez du iritzirik eman nahi izan proposamen berri honen

aurrean. LHTren kontrako Asanbladak, ostera, adierazi du Arrasaterentzat onuragarria bada ere, proposamen berriak natura beste proiektuak beste kaltetzen duela. Izan ere, ibilbide osoa lurrazpian joango litzateke. Horratz kaltea.

GIPUZKOAKO BIDEGORRIAK

Gipuzkoako 20 erakundek, bailara guztiak batuko dituen bidegorri sarea egiteko proposamena aurkeztu diote

Gipuzkoako Foru Aldundia-ri. Bidegorri sare honen bidez, bizikletaren erabilera bultzatu nahi da.

Gauregun, Gipuzkoan 17 kilometro bidegorri daude. Proiektuaren bultzatzaileek kilometro kopuru eskasa dela uste dute eta elkarrekin loturarik ez dutela. Horrexegatik aurkeztu dute Lehendabizi izeneko proposamena. Proiektu hau, 1994. urtean egin ziren Interbentzio Gune Partehartzaileak izeneko jardunaldien ondorioa da.

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

FANTASIA ETA BELDURREZKO ZINE MARATOA

azaroaren 20an
(ostirala)

Amaia Antzokian
gaueko 22:00etatik aurrera
sarrera: 600 Pta

EGITARAUA

film laburrak:

Sex & Violence (1997) Bill Plympton.
How to Make Love to a Woman (1995) Bill Plympton
Por un infante difunto (1998) Tinieblas González

filmak:

Stephen King's The Night Flier (1997) Mark Pravia
Once Upon a Time in China and America (1997) Sammo Hung
Progeny (1998) Brian Yuzna

gm!
gaztemaniak!



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gazteria eta Kirol Departamentua



ARRASATEKO UDALA

Kolaboratzailea:
ATERPE TABERNA

Arrasate Press ixteko mehatxuak egin ditu talde klandestino batek

Mondragoeko Partidu Eskuidar Popularraren Gazteria Saileko Elkarte Klandestinoak gutun bat helarazi zuen *Arrasate Press*era hil honen 10ean, asteartean, *Arrasate Press*en itxiera aldarrikatuz.

Idazten duenak dio PPko militantea dela eta arrasatearra. Gutuna Arrasaten bidali zen, hemengo zigilua du eta, egunean bertan.

Gutuna hiru laguni zuzenduta dago: José Aranzaval (horrela idazten du berak), Iker Barandiaran (zeini "gastechero colaborador" deitzen baitio) eta Carmela Perez.

Gutunak adierazten duen moduan, kanpaina bat omen dago abian sinadurak jasotzeko, *Arrasate Press* ixteko helburuarekin. Pluraltasun eza leporatzen dio aldizkariari eta errespeto falta abertzale ez direnekin eta euskara ez dakitenekin. Argi utzi nahi du Euskal Autonomi Erkidegoko hiru herrialdeak "estatu espainiar handiago, indartsuago eta garaia go baten zati direla,

TEXTO INTEGRADO EN LA CAMPAÑA DE RECOGIDA DE FIRMAS CONJUNTA A FAVOR DEL CIERRE DEL SEMANARIO ARRASATE PRESS POR APOYARSE CLINICAMENTE EN EL ARTÍCULO 3.3 DE LA CONSTITUCIÓN Y DISCRIMINAR ASÍ A LOS CASTELLANOPARLANTES, INCUMPLIENDO AL MISMO TIEMPO EL ART.3.1 (Deber de todos los españoles de utilizar y conocer el castellano, y, por tanto, de recibir información en esta lengua)

CARTA A : JOSÉ ARANZAVÁL, DIRECTOR DEL SEMANARIO "ARRASATE PRESS", IKER VARANDIARAN, GASTECHERO COLABORADOR Y CARMELA PEREZ, COLABORADORA HABITUAL tb.

Me sorprende, aunque no demasiado, que sigan ustedes con la misma falta de pluralidad y respeto a las personas no nacionalistas no ya de Mondragón, el

orain bostehun urte inperio handi bat eratu zuena".

De facto konstituzioaren aurkakotzat jotzen du "udalak, hiritar guztien diruarekin, finantzatzen duen astekaria erabat euskaraz izatea". Horregatik, "PDptik borroka egingo dugu, onean edo txarrean, behin behineko itxiera ez bada, gutxienez Arko elebiduna lortzeko; behar izanez gero, Konstituzio Epaitegira iritsiko gara hori lortzeko".

Joxe Aranzabalek idatzitako artikulua bati buruz idazten duenean, PPko botoemaitzat aitortzen du bere burua,

adieraziz herri hau ez dela *Arrasate Pressek* jotzen duen bezain abertzale.

Isolamentua jartzen du arrazoi moduan azaltzeko Arrasatek politikan dituen berezitasunak. "Euskal Herriko komunikabiderik eskasak ditu, Bilbo, Gasteiz edo Donostiara joateko mendateak zeharkatu behar dira". Honek eragotzi egiten du arrasatearrak kanpora irtetea. Gainera, "Mondragon Unibertsitateak ere areagotu egiten du isolamentu hori, honek eragotzen duelako hemengoak kanpora irtetea".

Iker Barandiaran jartzen du itxieraren eredu gisa eta bigarren aldiz aipatzen duenean, tonu iraingarrian beti, zera esaten du: "Iker Varandiaran (horrek unibertsitatea zapaldu ere ez du egin)". Salatu egiten du aldizkariaren gutunak beti direla Jarrai, Zutik, Senideak, Egizan, HB edo Gazte txekoak. Eta lotsagabeki ez dugula bere gutun hau argitaratuko, sinadurarik ez dakarrelako.

Astero-astero *Arrasate Press* zakarrontzira botatzen duela esaten du eta gobernua *Egin* itxi zuen bezala "gauza bera lortuko dugu *Arrasate Pressekin*, haren ahizpa txiki eta pobreakekin. Laster ez dira geratuko ez *Euskadi Informacion* ez *Egunkaria* ere...".

Arrasate Pressek ez du gutun hau gutun sailean sartu, aldizkariak ezarritako baldintzak betetzen ez dituelako. Hala ere, nahi izan dugu herri-tarek izan dezaten bertan isurtzen diren salaketa eta mehatxu larrien berri.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Xabier Zubizarreta Belgikan

HBko nazioarteko harremanetarako ordezkariak euskal gatazkari buruzko gorabeherak jarri nahi dituzte agerian Europan, era berean nazioarteko komunitateari euskal gatazkari konponbidea emateko parte hartzea eskatuz.

Xabier Zubizarreta Arrasateko alkate ohia ere ibili da Europan aurreko astean. Bruselan ETArekin su etenari buruzko prentsaurrekoa eskaini zuen Elena Belokirekin batera. Nazioarteko euskal gatazka- ren inguruan zuen ikuspegia aldatu egin dela antzeman du Xabierrek: "Lehen demokrazia eta biolentoen arteko auzi bezala ikusten zen. Orain, ordea, gatazka- ren zergatiaz gehiago kezkatzen da jendea.

Hauteskundeak herri eskoletan

Aste honetan hauteskundeak izan dira Gipuzkoako herri ikastetxeetan Eskola Kontseiluak aukeratzeko. Eskola Kontseiluak ikastetxeetako organu gorenak dira. Gurasoek, irakasleek eta udaleko ordezkariak osatzen dute.

Arrasateko eskolan ere partehartze handia izan da. Herri eskoletako arduradunek aipatu hauteskundeek ikastetxeen izaera demokratikoa islatzen dute diote.

Erraldoien eta kilikien jaia

Larunbatean, Arrasateko Erraldoien eta Kilikien jai eguna ospatuko da. 1985ean konpartsa sortu zenetik, ez dute haren inguruko egun berezirik izan. Ondorioz, Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak eta Gaitajoleek antolatuta, lehen eta oraingo konpartsa kideak berriz elkartuko dira jai honen bidez. Elgoibarko eta Iruñeko gaitajoleak gonbidatu bezala etorriko dira. Izan ere, Arrasateko konpartsa sortzeko proiektuan laguntzaile lanetan ibili ziren.

KALEJIRA ETA DANTZAK

Jaialdia eguerdiko 12:30etan hasiko da, Herriko Plazan. Konpartsa kideei eta musikoei ongi etorria eman eta jaiari hasiera emateko etxaleroak botako dira. Ondoren, herriko kaleak gaiten doinuez beteko dira. 13:00etatik aurrera, gaitajole guztiak batera kalejira alai egingo dute, bazkaltzeko ordua heldu arte. 14:30etan, Musakolako Ostalean anaiarteko bazkaria egingo dute. Hirurogeita hamar bat lagun batzea espero dute.

Arratsaldean, berriz, Erraldoi eta Kilikien Konpartsak Arrasateri eskainitako ekitaldia ikusi ahal izango dugu Herriko Plazan 19:00etatik aurrera. Ez da galtzeko ikuskizuna izango, alajaina!


ARRASATEKO HISTORIAREN BARNE

Erraldoiak eta buruhandiak aspalditik daude loturik gure folkloreari. Arrasate ez da salbuespena.

Arrasateko Konpartsan 6 kiliki, 2 zaldiko eta 4 erraldoi daude. Mondragoen 1448. urtean izan zen "Banderizoen Guda"rekin lotutako pertsona ospetsuak dira. Erraldoiek Gómez González de

Butrón, Elvira Leiva, Martín Ibañez de Artazubiaga eta Sancha Otxoa irudikatzen dituzte eta txikiak, berriz, garai hartako pertsona herrikoiak: indianoa, piratak, artzaina, inkisidorea eta olagizona.

Arrakasta handia izan dute Arrasateko Buruhandiek eta Erraldoiek. Askotan ari dira irteten inguruko herrietako jaietara.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

EGUZKIGRAF
inprimategia
ARETXABALETA
Industrialdea E-04
Finca 791844
Fax: 792911




ATHLETIC BULTZATUZ

Arrasateko Imanol taldeko kideak Turineraino joan ziren, Juventusen aurkako partida ikustera. Gehienak hegazkinez joan ziren. Besteak autobusez. Berango, Eloi, Karmelo, Fernando, Pedro, Tere eta Tereren laguna dira argazkikoak.

LAGUN DANIARRAK

Aste honetan Kopenhageneko ekologista talde bat izan da Arrasate bisitatzeko. Saiolan eta kooperatibak ezagutzen igaro zuten denbora gehien. Asteartean Arkon izan genituen. Gazteen aldeko proiektuak egiten dituzte, beti ere ekologia bultzatuz. Argazkian, Jose Ramon Elorzarekin.



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

•ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE

MUGARRIZ- -MUGARRI II

Mugarri-Muru-Gesalibar-Besaide-Garagartza izan zen egitasmo honen bigarren etapa. Eguraldi zoragarriak lagunduta, 30 mendizale elkartu ziren igandean eta ederki asko ibili ziren. Azken etapa azaroaren 22an izango da. Udalatik Kataideraino.



ASPALDIKO GARAIAK GOGORATZEN

Eskola Politeknikoan orain 50 urte hasi ziren ikasleek urriaren 31n bazkaria egin zuten Mondragon Hotelean. Ezkerrean zutik, Angel Ezkurra "Galarra", Ziordia, Jon Muxika, Francisco Molina, Ricardo Beitia, Jose Luis Abarrategi, Angel

Bengoia, Eduardo Gutierrez, Santos, Esteban Atxa eta Ignacio Mendizabal. Jarrita, Sabino Martiartu, Angel Elguero, Patxi Goikolea, Julian Elorza, Joxemari Orma, Irizar eta Manolo Perostorena.



OPORRAK!!!

Martin Mendialduak 60 urte beteko ditu azaroan. Adin horrekin erretiratzen denez, hilabetearen bukaeratik aurrera ez da berriz goizean-goiz jaiki behar izango lanera joateko. Fagor Ederlanen eta Uribarri Fundazioan jardun du lanean. Bere lankideen partetik, zorionak eta ondo bizi hemendik aurrera!



TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

Haurren Ahotsak gaztetur...

San Viator txiki Ikastolako laugarren mailako haurrek alkateari eginiko eskaeratariko batzuk dira hauek. Euskal Herriko UNICEF Batzordea garatzen ari den Haurren Ahotsa egitasmoaren barruan, haurrei iritzia azaldu eta euren eskubideak defendatzeko aukera ematen zaie.

Azaroaren 21ean, larunbata, 8-11 urte arteko haur mondragoetarrek hauteskundeak izango dituzte. Ia zortziehun haurrek eman ahal izango dute botoa goizeko 11:00etatik iluntzeko 18:00ak bitartean, herriko hiru gunetan: Musakola Herri Eskola - San Antolinen, udaletxeko osoko bilkura aretoan eta San Viator Txiki Ikastolan.

Haurrei banatutako boto txarteletan 12 eskubide jasotzen dira. 1989. urtean Genevan onartu zen Nazio Batuen Hitzarmenean jasotako haurren oinarritzko 12 eskubideak dira: nortasuna, familia, babesa, osasuna, hezkuntza, jolasa, berdintasuna, partehartzea, ongizatea, bakea, haurrak aurretik eta elkartasuna. Horien artean, haur bakoitzak norberarentzat beharrezkoena den eskubidea aukeratu beharko du.

Behin emaitzak jasota, haurrek adierazpen bat idatziko dute gizarte helduari zuzendutako proposamen zehatzekin eta Gabonetako Txikilandian aurkeztuko dute. Modu honetan, hitzarmena haurren artean eta orohar gizartean ezagutarazi nahi dute. Era berean, lehendakariarekin eta Eusko legebiltzarkideekin bilduko dira urta-

“Alkateak Arrasateko erreka garbitzea nahi dut, arrainak bizi daitezen eta gu ere bainatzeko”. “Bada nik, eskola nire etxetik hurbialgo egotea nahiko nuke eta pobreentzako etxak egitea”. “Eta nik ikastolako jolastokia handi dezala eskatu nahi diot, ez daukagu denontzat lekurik”.



San Viator Txiki eskola, larunbateko hauteskundeetako bozketa-guneetariko bat izango da.

rrilaren bukaera aldean. Eta ekimenaren ondorengo garrantzerako, Jarraipen eta Sustapenerako Tresna bat eratuko dute.

HELBURUAK

Egitasmo hau *Haurren Ahotsa* deitzen da. Euskal Herriko UNICEF Batzordeak sustatu eta Giza Eskubideen Adie-

razpen Unibertsala orain 50. urte onartu zela aprobetxatuz abian jarritako ekimena da.

“Beti Hirugarren Munduko edo behintzat behar oso larriak dituzten haurrak izan dira UNICEFen kezka nagusia. Oraingoan, aldiz, hemengo iritzia jakin nahi izan dugu. Horretarako, hauteskundeak deitu ditugu, ekintza demokratiko baten bitartez, haien zako partaidetza gune bat zabaltzeko”. Aitziber Azkondo UNICEFeko kideak horrela esplikatu digu egitasmo hau garatzeko ideia nondik irten den.

Ekimen honekin lortu nahi diren helburuak dira: Haurren Eskubideen Hitzarmena zabaltzea eta haurrek parte hartze-prozesu bat eragitea, besteak beste, beren iritzia adierazi eta beren eskubideekin lotutako proposamen eta eskaera zehatzak egin ditzaten. Era berean, haurrek herritar gisa dituzten eskubideak gauzatu eta beren betebeharrak modu arduratsu, libre eta jakinaren gainean bete ditzaten lortu nahi da.

“Nahiz eta haurren eskubideak estatu guztiek legez bete beharreko zerbait izan, askotan ez dira errespetatzen”.

EUROPAN LEHENENGO ALDIZ

Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, 80.000 haur baino gehiago daude hauteskunde hauek deituta. 382 hauteskontzi prest edukiko dituzte 250 herri-tan.

Europar lehenengo aldiz, haurrek hauteskundeetan parte hartuko dute Haurren Kontsulta deituriko honetan.

Europatik kanpo egin izan da antzeko egitasmorik. Ekua-

la zortziehun haur mondragoetarrek botoa emateko aukera izango dute azaroaren 21ean

enen iritziak helarazteko



San Viator Txiki eskolako 4. mailako haurrek ikasgelan landu dute gai hau andereñoarekin.

dorren 1990ean, Kolonbian 1996an eta Mexikon 1997an.

LAN TALDEAK

Jende asko dabil lanean egitasmo hau garatu ahal izateko. Lehenik eta behin, Euskal Herriko UNICEFeko Batzordeak sensibilizazio kanpainari ekin zion. Gizarte eragile nagusiengana jo zuen horretarako (alderdi politikoa, sindikatoak, erakundeak...). Ondoren, haurren eskubideei buruzko hezkuntza prozesu bat sustatu nahi izan zuten ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan. "Aspaldi hasi ginen lanean. Irailetik aurrera ikastetxe guztietara gutunak bidali, askotara pertsonalki joan eta irakasleekin elkarlanean hasi ginen mintegien bitartez", kontatu zigun

Aitziber Azkondok.

Arrasaten ere material didaktikoa bidali dute eskola guztietara, haurren parte hartzea bultzatzeko. Koadernoen bitartez, haurrek eskubideei buruzko iritzia emateaz gain, herriko alkateari eskaera zuzen bat egin ahal izango diote.

Honetaz gain, lantegiak prestatu dira irakasle eta sustatzaileekin, haurrekin batera eskubide horien gaineko gogoeta egin eta eskubideak bermatzeko.

Haurren Kontsulta egunean ere, hainbat pertsona arituko dira lanean. Gune bakoitzean, 12-16 urteko borondatezko begiraleak arituko dira laguntzaile moduan. Guztira, borondatezko 1.000 lagunek egingo dute lan.

Honetaz gain, UNICEFek ordezkariak izendatuko ditu, gune bakoitzean prozesu osoa finkatuta bezala burutzen dela ziurtatzeko. Botoak zenbatu eta agiri bat jasotzeaz ere arduratuko dira.

“Nahiz eta eskubideak estatu guztiek legez bete beharreko zerbait izan, askotan ez dira errespetatzen”
Aitziber Azkondo, UNICEFeko kidea

UNICEF

Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Fundazioa (UNICEF) 1946an sortu zen. Bigarren Mundu Gerraren amaieran haurrek zituzten premia larriak asetzeko. 1965ean Bakearen Nobel Saria jaso zuen. Gauregun, 190 herri baino gehiagotan ari da lanean helburu nagusi batekin: Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena zabaltzea. Eskubide hauek printzipio etiko iraunkorrak bihurtu eta haurrekiko jokaera arautzeko nazioarteko arauak izan daitezten lortzeko egiten du lan.

Desnutrizioa, gaixotasunak, pobrezia eta ezjakintasunean bizi diren milaka haur eta beren familiei lagundu die UNICEFek.

Ubane Madera



Gogo biziagoa, mutilak!

Gogoa jartzen dutela, horretaz ez dago dudarik. Baina nolakoa? Argazkikoek intentziora behintzat badutela dirudi. Txapelketaren hasiera delako edo? Ea aurrerantzean ere horrela segitzen duten, oraindik norgehiagoka piloia gelditzen da eta!

Laburrak

■ KANPOTARRAK FIN TXAPELKETAN

Txantxiku Kirolak, talde oñatiarrak, ondo baino hobeto hasi du Zaldibarko futbito txapelketa. Tantxikuarrek orain arteko bi norgehiagokak irabazi dituzte eta ez alde gutxirekin gainera. Lehen jardunaldian 14 gol sartu zizkieten Aterpe Kafetegikoei eta joan den asteburuan, berriz, 15 lortu zituzten Potrosorriren aurka.

Baina ez dira hauek arrasatearrak izan gabe emaitza

onak lortzen ari diren bakarrak. Construcciones Lusok esaterako, hemen lanean ari diren portugesez osaturiko taldeak, Driblingekoak garaitzea lortu zuten azken partidari, 8 eta 3.

Beste horrenbeste egin zuten Orlando Piratas atxabalduak ere. Hauek, ordea, markagailu apalagoarekin konformatu behar izan zuten: 5 eta 1 Rotor de Bolbogradoren aurka.

Atxabaldarrak dira baita, Naranja Mecanica taldeko fut-

bolarrietako batzuk. Eskoriatzako beste jokalaririk batzuekin batera osatu dute taldea eta hauek ere garaipena lortu zuten: 4 eta 11, Etxe Mobelen aurka.

■ KINIELETARAKO GOIZEGI?

Hirugarren jardunaldian dago Zaldibarko txapelketa eta oraindik goiz da taldeei buruzko gorabeheraz hitz egiteko. Dena den, aipatzekoa da bade-la txapelketa hobeto hasia

espero zen talderik. Iazko txapelkunak esaterako, Aldibi, A sailkapeneko 8. tokian dago. Lehen jardunaldiko markagailuak eragin die iazko txapelketei hortxe egotea. Hala ere, bigarren norgehiagokan gol gehiago sartzea lortu zuten. Aste honetan AC Surkos taldea izango dute aurrez aurre. Hauek, sailkapeneko 3. tokian daude eta orain arte Aldibikoek baino gol gehiago lortu dituztenez, norgehiagoka polita izan daiteke larunbatekoa.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Sailkapenak

| A taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-----------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| LONTXO TABERNA | 2 | 2 | 0 | 0 | 15 | 2 | 4 |
| KE OXTIAS !!! | 2 | 2 | 0 | 0 | 16 | 4 | 4 |
| AC SURKOS | 2 | 2 | 0 | 0 | 12 | 3 | 4 |
| XHASSS UGARTE | 2 | 2 | 0 | 0 | 12 | 3 | 4 |
| ORLANDO PIRATAS | 2 | 2 | 0 | 0 | 9 | 3 | 4 |
| PEPELUS | 2 | 2 | 0 | 0 | 8 | 3 | 4 |
| INSERT COIN | 2 | 2 | 0 | 0 | 7 | 4 | 4 |
| ALDIBI | 2 | 1 | 0 | 1 | 8 | 2 | 2 |
| KOM. ALPARGAT | 2 | 1 | 0 | 1 | 12 | 10 | 2 |
| LEYA | 2 | 1 | 0 | 1 | 6 | 8 | 2 |
| ALAI GOZOKIAK | 2 | 0 | 1 | 1 | 5 | 6 | 1 |
| BALON ROJO | 2 | 0 | 1 | 1 | 3 | 9 | 1 |
| REX 23 | 2 | 0 | 0 | 2 | 3 | 9 | 0 |
| SAUKELU SCREAM | 2 | 0 | 0 | 2 | 4 | 10 | 0 |
| SERENGETI HC | 2 | 0 | 0 | 2 | 4 | 15 | 0 |
| ROTOR BOLBO | 2 | 0 | 0 | 2 | 4 | 16 | 0 |
| BUKANAK | 2 | 0 | 0 | 2 | 2 | 12 | 0 |
| MAKAI | 2 | 0 | 0 | 2 | 0 | 11 | 0 |

| B taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| TXANTXIKU KIROL. | 2 | 2 | 0 | 0 | 29 | 1 | 4 |
| AURRERA BOLIE | 2 | 2 | 0 | 0 | 8 | 5 | 4 |
| NARANJA MECAN. | 2 | 1 | 1 | 0 | 13 | 6 | 3 |
| IRATI STS | 2 | 1 | 1 | 0 | 8 | 4 | 3 |
| KKJAURI | 2 | 1 | 1 | 0 | 6 | 4 | 3 |
| BORROCK & ROLL | 2 | 1 | 1 | 0 | 9 | 6 | 3 |
| GARAJE OSKAR | 2 | 1 | 0 | 1 | 12 | 6 | 2 |
| ZOTZ | 2 | 0 | 2 | 0 | 8 | 8 | 2 |
| KOKA JUNIORS | 2 | 1 | 0 | 1 | 5 | 5 | 2 |
| AT CELAYA | 2 | 1 | 0 | 1 | 5 | 6 | 2 |
| PUB ARROGOI | 2 | 1 | 0 | 1 | 5 | 7 | 2 |
| POTROSORRI | 2 | 1 | 0 | 1 | 4 | 15 | 2 |
| LOS HEREDIA | 2 | 0 | 1 | 1 | 5 | 6 | 1 |
| DIEGO ANTONIO | 2 | 0 | 1 | 1 | 6 | 7 | 1 |
| LAUTERBRUNENN | 2 | 0 | 1 | 1 | 3 | 6 | 1 |
| ATERPE KAFE. | 2 | 0 | 1 | 1 | 3 | 17 | 1 |
| DKB | 2 | 0 | 0 | 2 | 6 | 11 | 0 |
| ETXE MOBEL | 2 | 0 | 0 | 2 | 6 | 21 | 0 |



Emaitzak

A TALDEA
 Bukanak 2 - Insert Coin 3
 Lontxo Tab. 6 - Saukelu Scream 2
 Rex 23 1 - Ke Oxtias!!! 5
 Orlando Pira. 5 - Rotor Bolbo. 1
 Balon Rojo 1 Xhass Aldapa 7
 Pepelus 6 - Serengeti HC 2
 Aldibi 7 - Makai 0
 AC Surkos 8 - Kom. Alpagata 3
 Alai Gozokiak 3 - Leya 4

B TALDEA
 Borrock & Roll 3 - Los Heredia 3
 DKB 3 - Aurrera Bolie 5
 Etxe Mobil 4 - Naranja Mecan. 11
 Garaje Oscar 2 - KKJauri 4
 Aterpe Kafe. 3 - Lauterbrunnen 3
 Txantxiku Kafe. 15 - Potrosorri 1
 Irati STS 4 - Zotz 4
 AT Celaya 5 - Pub Arrogoi 2
 Koka Juniors 3 - Diego Antonio 2

D TALDEA
 Construcciones Luso - 8 Driblig 3
 Potroak 2 - Decadencia 0
 Fraguel Gol 2 - Euskal Presoak 2
 Sokoakoak 5 - Kamasutra 4
 Betrayer 2 - Totem 5
 Branka Taberna 3 - Jako al Rey 3
 Aita Menni 2010 3 - Bar Nuevo 2
 Jotakabau 6 - Eusko Label 2

Iruzkina

Norgehiagoka interesgarriak

LARUNBATEAN, ZALDIBARREN

- 12:00etan AC Surkos - Aldibi
- 17:00etan Balon Rojo - Leya
- 18:00etan Borrock&Roll - Aurrera Bolie
- 19:00etan Sokoakoak - EPEH

IGANDEAN, ZALDIBARREN

- 11:00etan Diego Antonio- Irati STS
- 12:00etan AT Celaya - Koka Juniors

| D taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-----------------|-----------|---------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irabaz. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| POTROAK | 2 | 2 | 0 | 0 | 12 | 1 | 4 |
| SOKOAKOAK | 2 | 2 | 0 | 0 | 8 | 4 | 4 |
| TOTEM | 2 | 2 | 0 | 0 | 8 | 4 | 4 |
| JOTAKABAU | 2 | 1 | 1 | 0 | 7 | 3 | 3 |
| AITA MENNI 2010 | 2 | 1 | 1 | 0 | 4 | 3 | 3 |
| YOU KNOW | 1 | 1 | 0 | 0 | 8 | 3 | 2 |
| EUSKAL PRESOAK | 2 | 0 | 2 | 0 | 5 | 5 | 2 |
| BRANKA TABERNA | 2 | 0 | 2 | 0 | 4 | 4 | 2 |
| DRIBLIG | 2 | 1 | 0 | 1 | 7 | 9 | 2 |
| CONSTRUC. LUSO | 2 | 1 | 0 | 1 | 9 | 13 | 2 |
| JAKO AL REY | 2 | 0 | 1 | 1 | 5 | 6 | 1 |
| KAMASUTRA | 2 | 0 | 1 | 1 | 7 | 8 | 1 |
| FRAGEL GOL | 2 | 0 | 1 | 1 | 2 | 5 | 1 |
| BETRAYER | 2 | 0 | 1 | 1 | 3 | 6 | 1 |
| BAR NUEVO | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 3 | 0 |
| DECADENCIA | 2 | 0 | 0 | 2 | 1 | 6 | 0 |
| EUSKO LABEL | 2 | 0 | 0 | 2 | 5 | 14 | 0 |

Hurrengo partidak

| | | |
|---|--|---|
| <p>Azaroak 14, larunbata</p> <p>Zaldibar</p> <p>09:50 Makai - Serengeti HC</p> <p>11:00 Alai Gozokiak - Xhaas Ugarte</p> <p>12:00 Aldibi - AC Surkos</p> <p>13:00 Garaje Oscar - Naranja Mecan.</p> <p>14:00 Betrayer - Jako al Rey</p> <p>15:00 Lontxo Taberna - Isert Coin</p> <p>16:00 Branka Taberna - Totem</p> <p>17:00 Balon Rojo - Leya</p> <p>18:00 Borrock & Roll - Aurrera Bolie</p> <p>19:00 Sokoakoak - EPEH</p> | <p>Iturripe A</p> <p>11:00 DKB - Los Heredia</p> <p>12:00 Potroak - Dribling</p> <p>13:00 Orlando Piratas - Ke Oxtias!!!</p> <p>14:00 Etxe Mobil - KKJauri</p> <p>15:00 Rex 23 - Rotor de Boblogrado</p> <p>16:00 Txantxiku Kirolk - Lauterbrunnen</p> <p>17:00 Fraguel Gol - Kamasutra</p> <p>Iturripe B</p> <p>13:00 Bukanak - Saukelu Scream</p> <p>14:00 Aterpe Kafetegia - Potrosorri</p> <p>15:00 Jotakabau - You Know</p> <p>16:00 Construcciones Luso - Decadencia</p> <p>17:00 Pub Arrogoi - Zotz</p> | <p>Azaroak 15, igandea</p> <p>Zaldibar</p> <p>09:50 Eusko Label - Bar Nuevo</p> <p>11:00 Irati STS - Diego Antonio</p> <p>12:00 AT Celaya - Koka Juniors</p> <p>13:00 Pepelus - Komando Alpagat</p> <p>Atsedena: D taldea: Aita Menni 2010</p> |
|---|--|---|

Montte

Arkatz batetik bulego oso batera salgai

Pablo Uranga denda gutxiko kalea da. Hala ere, orain dela sei urte Montte denda zabaldu zuten, Arrasateko saltoki handien artean dagoena, hain zuzen ere. Bertako langilea den Kontxi Agirregabiria esandakoaren arabera, jadanik 26 urte igaro dira Jose Luis Sudupek Uribeko denda txikia zabaldu zuenetik.

Garai hartan Sudupek ikastetxeak eta lantegiak bisitatzen zituen ikasle eta langileen beharrak zeintzuk ziren jakiteko. Antza denez, gauzak ondo joan zitzaizkion eta bere negozioa zabalduz joan zen. Hori dela eta, denda zaharra saldu, eta erdigunean denda handiago bat zabaltzea bururatu zitzaion.

Denda berrira gazte gehiago hurbiltzen omen da. Kontxi Agirregabiria ziurtatzen duenez, aurrerantzean guztietako pertsonak hurbiltzen dira Pablo Urangako dendara, nahiz eta urtean boladak izan.



Kontxi Agirregabiria Montteko langilea.

Era berean, gizonak emakumeak baino gehiago izaten dituzte. Izan ere, gizonak dira gehienbat informatikan murgiltzen direnak. Beraz, erosle gehiago eta anitzagoak dituzte. Herriko erdigunean izatea abantaila ugari dakartza. Zentrala, berriz,

hasiera batean Zumarragan jarri, baina gerora Beasainera pasatu zuten. Gaur egun lau ordezkari dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan: bana hiriburu bakoitzean eta Arrasatekoa. Azken honetan lau langilek dihardute: dendaz arduratzen diren Kontxi Agi-

rregabiria eta Kontxi Unzuete, Josetxo Susperregi informatikoa eta kanpo harremanak darabiztan Mikel Gabilondo. Montte bulego materialarekin zerikusia duen edozer saltzen du: arkatzak, borragomak, kalkulagailuak, ordenagailuak eta bulegoak.

MAKILAJE IKASTAROA

Miren Arrieta Estetizistak emana

- Berezko edertasuna azalertzeko zer egin ikasteko
- Norbera makilatuz praktikatzeko

- Azaroaren 18, 25 eta abenduaren 2an
- Arrasaten
- EKINen egoitzan
- Pablo Uranga, 4 behean (AED)
- Arratsaldeko 15:30etan

Tel.: 943 77 12 28

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA



Laguntzaileak:



Miren Arrieta
Estetika Zentrua
Zerkaosteta kalea


Kabía

ALTZARIAK

zapatu arratsaldeetan
ZABALIK

%50

Udazkeneko
merkealdia



%30

Eskaintza
bereziak

Errugbilari mondragoetarrek hasiera bikaina izan dute



Patxi Gorosabel
39 urte
Entrenatzailea



Iker Saizar
20 urte
Pilierra
3 urte senior mailan



Iñigo Ansuategi
31 urte
Pilierra
9 urte senior mailan



Jon Balzategi
19 urte
Orpokatzailea
2 urte senior mailan



Arkaitz Iburguren
20 urte
Erdilaria
3 urte senior mailan



Gaizka Aranegi
22 urte
2.-3. erdilaria
2 urte senior mailan



Ivan Barrutiabengoa
21 urte
Erdilaria
4 urte senior mailan



Aritz Gorroño
21 urte
Aurrelaria
2 urte senior mailan



Zumbeltz Arana
20 urte
Mele erdikoa
3 urte senior mailan



Joseba Maidagan
27 urte
Joko zabaltzailea
8 urte senior mailan



Eneitz Balanzategi
18 urte
Hegalekoa
urte bat senior mailan



Gari Heriz
19 urte
Hegalekoa
3 urte senior mailan



Jon Aldamiz
26 urte
3. hegalekoa
2 urte senior mailan



Ander Egues
25 urte
3. hegalekoa
8 urte senior mailan



Gaizka Biteri
22 urte
Hegalekoa
3 urte senior mailan



Jon Aranburu
26 urte
3. lerrokoa
3 urte senior mailan



Iñigo Olasolo
28 urte
2. lerrokoa
5 urte senior mailan



Iban Agirreurreta
24 urte
3. lerrokoa
7 urte senior mailan



Jose Manuel Servide
23 urte
Atzelaria
4 urte senior mailan



Egoitz Unamuno
20 urte
Joko zabaltzailea
3 urte senior mailan

Senior mailako Arrasateko Errugbi Taldeak nahiko ondo hasi du denboraldia. Joan den larunbatean Garagartzan jokatu zuten Atletico de San Sebastianen aurka eta 30 eta 10 aldeko emaitza lortu zuten. Patxi Gorosabalek entrenatzen duen taldeak aste-buru honetan Hernanin izango du norgehiagoka. Hernaniarrak saikapenean lehen tokian daude. Hori dela eta, neurketa gogorra izango da errugbilari mondragoetarrentzat. Dena den, eta orain arteko emaitza onak ikusita, larunbatekoa, arratsaldeko 16:30etan, irabazteko partida izan daiteke. Landare errugbi zelaian jokatu da norgehiagoka.

Trial txapelketa Udalan

Arrasateko Motorzale Elkartek Euskal Herriko Trial txapelketarako puntuagarria den proba antolatuko dute iganderako. Bosgarren urtez antolatzen duten proba hau, aurren ere Udalan jokatu da.

Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako 30 bat lagun arituko dira lehian goizeko 10:00etatik aurrera.

Arrasatek ez da leihakiderik airtuko. Ander Lan-

daluze trialsinzaleak, lesionaturik jarraitzen duela eta, ezingo da Udalako proban egon. Dena den, proba ikusgarria izango da, dudarik gabe.

Motozale Elkartek adierazi digutenez, ibilbidea eta probak iazkoak izango dira eta lekua ere bera izango da. Hori bai, proba 10:00etan hasten denez, eta auto asko igotzen direnez, aurrez joatea gomendatu dute.

*Behobia-Donostia lasterketan
mondragoetar gazteena*

ANDER ANSOATEGI

“Orain dela bi aste hasi naiz atletismoan eta horixe izan da entrenamendu bakarra”

— **Behobia-Donostian izan zaren lehenengo aldia da?**

— Lehendik egona nintzen, baina ikusten baino ez. Lasterka egiten aurten izan da lehen aldia.

— **01:46:19ko denboran egin zenituen 20 km.ak. Gustura zaude?**

— Beno, egia esan, gutxiago egingo nuela uste nuen. Lasterketa hasieratik mina sentitu nuen sorbaldan eta horrek polikiago joatea eragin zidan. Gainera, lasterketa uztea ere pentsatu nuen, baina jarraitzea erabaki nuen. Gero mina ere pasatu zitzaindan.

— **Asko entrenatu duzu?**

— Ez. Iaz nire aita joan zen eta neuk aurten joatea pentsatu nuen. Orain dela bi aste hasi naiz atletismoan eta horixe izan da entrenamendu bakarra.

— **Zer iruditu zitzaizun lasterketa?**

— Antolaketa ona izan zen, baina egunkarietan irakurri nuenez, irteera 2 m. estutu omen zuten eta irteteko arazo asko izan ziren. Dorsal gorridun eta horidunak atera ziren lehenak eta gutxienak zirenez, ez zuten arazorik izan. Guk, ordea, ia 8.000 lagunek, ez genuen leku handirik: jende asko erori egin zen eta kontuz ibili behar zinen...

— **Ur nahikorik ez zizuetela eman ere entzun da.**

— Lehenengo anoa-postura iritsi ginenean ez zegoen urik, aurrekoek hartu zuten eta.

— **Zein helburu dituzu atletismo taldean?**

— Oraingoz lasterkariekin entrenatzen ari naiz eta ikusi egin beharko dugu zertan aritzen naizen.

— **Datorren urtean itzultzeko asmorik bai?**

— Bai. Aita, osaba eta hirurok joango gara, ea nor den azkarrena.



FUTBOLA Nagusiak irabazle



Preferente mailako Mondra taldeak 0 eta 1 garaitu zuten Pasaiaiko taldea joan den igandean. Gola Gorkak lortu zuen. Dagoeneko 11 puntu batu dituzte zerrajeroek. Aste honetan etxean arituko dira Beti Gazteren aurka, larunbatean 15:45etan.

Esti Loitiren neskak bestalde, Bilbon aritu ziren, baina ez zuten zorte handirik izan. Amaia Luengok bi gol sartu zituen arren, azken emaitza 5 eta 2koa izan zen. Aste honetan Atxabalpen arituko dira, 15:45etan, Lagun Onak azpeitiarraren aurka.

Ohorezko ligako gazteek ere ezin izan zuten garaipena lortu etxean jokatu zuten norgehiagokan. Oeta1 galdu zuten Beti Gazte taldearen aurka. Larunbatean Ondarruko Aurreraren aurka jokatu dute David Zaitegiren mutilek, 16:00etan.

XAKEA Hirugarrenean hiru



Hernando, Ortega, Ruiz eta Tornay, preferente mailako Arrasateko Xake taldeko kideek aurtengo ligako hirugarren partida eguna izan zuten joan den larunbatean. Herrian jokatu zuten eta aurrez aurre Hondarribiko Marlaxka taldea izan zuten. Badirudi preferente mailako jokora ohitzen hasi direla herriko xakelariak, 3 eta 1 irabazi zieten eta, hondarribitarrei. Aste honetan Donostiako Gros auzora abiatuko dira taularen gainean euren estrategiak jokoan jartzera. Aste honetan Tornayren partez Arriaran arituko da.

ATLETISMOA Behobia- -Donostia



50 bat lagun izan ziren Mondragoetik joan den igandean egin zen XXXIV. Behobia-Donostia oinezko lasterketan. Arrasatearrak azkarrena Jose Luis Ugalde izan zen 1:13ko denborarekin, Carlos de la Torre irabazleak baino 13 minutu ghiago.


Bigarren arrasatearra 321.a izan zen helmugan, Zesar Diez lasterkari beteranoa hain zuten ere. Emakumeen artean, azkarrena Mari Jose Gil izan zen 01:41:48 denborarekin.

SASKIBALOA Bigarren galera



Arrasate Saskibaloitaldekoek denboraldiko bigarren partida galdu zuten Iruñean. Lehen 37 minutuetan aurretik joan ziren, baina azkenean ezin izan zioten aldeko markagailuari eutsi eta Larraonak 62 Arrasatek 60 amaitu zen norgehiagoka. Aste honetan Paduraren aurka arituko dira Iturripen, 19:00etan.

ESKUBALOA Burua altxatu nahian



Arrasate Eskubaloitaldeak irabazi gabe segitzen du. Joan den asteburuan, Arakan jokatu zuten Gasteizko Gure taldearen aurka. Markagailuan alde handia egon zen, ez hainbeste jokoan. 26 eta 15 amaitu zen partida. Aste honetan etxean neurtu beharko dituzte indarrak Egia Yoo-ger's taldearen aurka. Partida larunbatean izango da Iturripen, 17:00etan.

GORKA ESPIAU (ELKARRIKO ARLOEN KOORDINATZAILEA)

“Gizartearen parte hartzea lortzen

26 urte ditu eta kazetaria da. Euskal Herriko bakebidearen alde lan egitea erabaki zuen eta horretan dihardu Elkarrri elkartearen azkenengo hiru urteotan. Bizkaiko koordinatzailea da Elkarrin.

— Zein da zure lana Elkarrin?

— Elkarrik gizartearen, politikan eta nazioartean lan egiten du. Nire lana hiru arloen arteko koordinazioa litzateke.

— Nola bizi izan zenuten ETaren su etena?

— Orain dela sei hilabete Eraiki izeneko dokumentuan datozen bi urteetarako lan programa jaso genuen, gatazka-ren bilakaera ona zela esanez. Ez genuen espero su etena horren azkar etorriko zenik. Dena den, gure lana berdintsua da orain ere. Su etenak elkarrizketari laguntzen dio,

baina hori ez da gure helmuga. Gu hiru ideia nagusirekin jaio ginen: elkarrizketa, ituna eta erreferenduma. Orain lehendabiziko fasean ginatke, baina garrantzitsuena izango litzateke akordioa iristea. Su etenak eragin handia dauka, baina gure lana ez da su etenarekin bukatzen.

— Hauteskundeetako emaitzak aldaketaren isla dira?


— Arnaldo Otegi esan zuen hauteskudeek emango zutela Euskal Herriaren argazkirik garbiena eta egia da. Dena den, gauzak lehengo moduan daude: lehen itun baten beharreak geunden eta une honetan berdin.

Hauteskundeak garrantzitsuak izan dira ikusteko gizartearen zatiketa hori badagoela, bai-

na itun horren beharreak segitzen dugu.

— Zergatik da beharrezkoa nazioartean parte hartzea bakebidean?

— Beharrezkoa agian ez da, baina beti aberasten du zerbait. Politikoei horrelako laguntza nahi baldin badute, gu prest gaude emateko. Argi dugu euskal alderdiek eta euskal gizarteak eraman behar dutela protagonismoa.



“Elkarrin oso argi dugu egunen batean desagertuko garela eta gainera oso gustura”

“Gizartearen parte hartzea beharrezkoa da bakebidean, baina zer lan tokatzen zaio?”

— **Gizartearen parte hartzea beharrezkoa da bakebidean, baina zer lan tokatzen zaio?**

— Gizartearen parte hartzea lortzen duten bakebideak indartsuagoak dira. Gizarte mugimenduekin elkarlana garatu behar dugu eta babesa eta laguntza eman alderdi politikoei. Zentzu horretan Eraiki-Ikasi deitzen den ekimena jarri dugu abian. 20.000 lagun bidaliko diegu bakebideari buruzko informazioa. Sare horien bitartez ziri soziala zuzpertzera lortu nahi dugu.

Dena den, uste dut goizegi dela. Denok daukagu gauzak mugitzen ari diren sentazioa, baina oraindik ez da gizartearen egitekoa kalean ikusteko unea iritsi.

— **Noiz eta nola hasi zen mamitzen Lizarrako ituna?**

— Lizarrako ituna alderdien arteko ekimena izan da bereziki. Gu han izan gara

babesa ematen, baina alderdi politikoeak dute protagonismoa. Ituna beste mugimendu batzuen ondorio da. Seguraski su etena Lizarrako itunaren ondorio bat izan da.

Honelako ekimen politiko batek atzean zerbait izango ez balu, ez luke horrenbesteko indarrak izango. Atzean dagoena urteetan zehar gizarteak eskatu duen elkarriketa, elkarlana eta distentsio politikoa dira: ELA-LABen arteko hitzarmena, presoen inguruko esperientziak, elkarriketaren aldeko apustua, EAJ-HBren arteko harremana EAekin batera... Gauza asko dira eta une batean Lizarrako itunean egin dute bat.

— **Lizarra eta Ermua batera ezinak dira?**

— Gure ustez, ez. Ermuaren atzean indarkeriaren aurkako jarrera bat eta irtenbide bat lortzeko deia daude. Lizarrako ituneko kideak ireki egin

behar gara eta Ermuaren atzean dauden sentsibilitateak gurekin batu. Lizarra fronte bat bihurtuko balitz izugarriko akatsa litzateke. Gatazkari irtenbide bat emateko sortu zen. Elkarri ez da Lizarran izango, fronte bihurtzen baldin bada.

— **Elkarrik sei urte daroma bakearen alde lanean. Nola baloratuko zenuke zuen ibilbidea?**

— Elkarrik elkarriketaren beharra mahaigaineratu du. Horrez gain, mezu batzuk ere plazaratu ditu: hirugarren esparruaren ideia, distentzioaren ideia, mugarik gabeko enpatearena... Ekarpentxiak, baina garrantzitsuak. Elkarriketa eta itunaren beharra eztabaida politikoa gune bihurtu ditugu.

— **Non gera litezke Nafarroa eta Iparraldea sortu den egoera berrian?**

— Nafarroa kanpoan gelditzeko arriskua ikusten dugu. Egon badaude aukerak Nafarroarekiko harremanak normaliztateko. Iparraldeak beste erritmo bat izan du eta beste formula bat planteiatu behar litzateke harako.

Nafarroak bere hitza izan behar du bakebidean. Irlandan Ipar eta Hegoaldeko estruktura oso interesgarriak dira guretzat eta hortik ikasi egin daiteke.

— **Zer lan gelditzen zaio Elkarriri hemendik aurrera?**

— Orain dela sei hilabete ostertzik gabe aurrera egitea erabaki genuen. Orain epe ertainera, urte batera edo bi urtera, gure ekarpena desagertzea izan daiteke. Elkarrin oso argi dugu egunen batean desagertuko garela eta gainera oso gustura. Ez dakit helburu guztiak beteko ditugun, baina ildo egokia bultzatu dugula uste dugu. ■

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu epotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikari erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

AGUSTIN
Automobilaren karburazioa eta elektronikak
Airtel
Uribarri Etorbidea, 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 73 58

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak
X Karta eta menu berezien zerbitzua
DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN
BASTER-ALDE
J A T E T X E A
Galartza auzoa • ARETXABAETA
Tel.: 943 79 24 58



Loreak mintzagai Jakoba Errekondorekin

Jadanik hasia da Jakoba Errekondo agronomoa Gesalibar-ko Jentil-Ola Elkartearen hitzaldiak eskaintzen. Barazkiak, fruta arbolak, etxebarruko loreak, balkoiak eta kanpoko apainketa loreak izango dira Jakobaren hitzaldien ardatza. Batez ere hauek behar duten zainketa azalduko die hantxe bildutakoei. Aipatu hitzaldiak azaroaren 10, 24 eta abenduaren 1ean izango dira, arratsaldeko 18:00etan.



Mota guztietako landareei buruz hitzegingo dute

“EKIN” ANTOLATZAILE

Ekin emakume elkarteak antolatuko du hitzaldia. Arrasateko Udaleko Emakume Sailaren babesarekin. Dena den, Ekin taldeko Marijek esan digun

bezala, ez da Jakoba Errekondo hizlari gisa ekarriko duten lehen aldia: “Lehenengo aldiz orain dela zortzi bat

urte etorri zen Jakoba. Orduetik beste pare bat aldiz ere etorri izan da. Hori bai; fruitu-landareak, loreak, ... izan ditu hizpide guztietan”.

Iaz, adibidez, Gesalibarraren eta AEDn antolatu zituzten landare eta lore zainketa ikastaroak Ekinekoek. Gesalibarraren izugarritzako harrera ona izan zuen ikastaroak, eta parte hartzaileek hurrengo batean gaia sakonago aztertze eskaera egin zuten. Hori dela eta, aurten hitzaldiak hiru egunean emango dira, gaiaren mamia osotasunean landuz.

JAKOBA ERREKONDO

Jakoba Errekondo betidanik izan da landare zalea. Injenieri

tekniko agronomoa eta paisajista da ikasketaz. Halere, bere burua ez du landareei buruzko aditutzat, landare zaletzat baizik: “beharbada beste guztetan baino arreta handiagoa jartzen dut horretan. Baina, oso zaila da gauza batetaz asko dakigula onartzea. Izan ere, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago jabetzen gara ikasteko falta zaigun guztiaz”.

Batez ere emakumeak izaten dira hitzaldietan Jakobaren entzule, baina landarezale diren guztiek dituzte atek zabalik hurrengo asteetan ere Gesalibarko Jentil Ola elkartearen emango dituen hitzaldietan.

Kontzertua Sarajevoren alde

Sarajevon dagoen Bjelave umezurtz-etxearen aldeko kontzertua eskainiko dute Juan Luis Anasagasti tenoreak eta Jaime Lazkano de Butron pianojoleak datorren larunbatean. Emanaldia San Joan parrokiaren izango da, eta sarrera ez da ordaindu behar.

Bilboko maitasun elkarteak eta San Joan eta San Andres

parrokien laguntzarekin antolatuko da emanaldia. Maitasun elkarteak Jugoslaviako gudan umezurtz gelditu zirenekin eta han izandako bortxaketen ondorioz jaiotako umeekin lan egiten dute. Bi urte daramatza lanean, eta oraingo honetan Bjelave umezurtz-etxearen alde dirua jasotzea izango du helburutzat.



Arantxa Alonso eta Juan Luis Anasagasti, udaletxeko prentzasurrekoan

Erdiko kale. 79 19 37

Ferrieras. 943 79 87 62

“PAL”
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarako hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

JUAN IGNACIO MONTIANO, IDAZLEA

“Mutikotatik idazten dut”

Juan Ignazio Montiano 37 urteko idazle arrasatearra dugu. Bi liburu idatzi ditu dagoeneko: “El cadáver de Porqueriza” eta “Zaino”. Azkena 1997ko urrian argitaratu zuen Granadako argitaletxe batek. Duela hilabete ingurutik, liburu hori alemanieraz irakurtzeko aukera ere badago Aquinoktium argitaletxeari esker.

— Idaztea ala irakurtzea nahiago?

— Bi plazer dira, eta bata ez du bestea kentzen. Biak ditut oso gustuko, bai irakurtzea eta baita idaztea ere. Batez ere eleberririk irakurtzea gustatzen zait, eta ez bereziki polizia eleberria. Idazteari dagokionez, aldiz, orain arte idatzitakoaren ildoari eutsiko diot momentuz.

— Noiztik idazteko zaletasuna?

— Mutikotatik idazten dut, baina 1995a arte ez nuen ezer argitaratu. Batez ere ipuinak eta narratiba motza idatzi izan dut, eta horietako asko etxean ditut; inoiz ez dira horiek argitaratu. Dena den, betidanik izan dut idazteko ohitura.

— Gustatuko litzazuke mutikotatik idatzita daukazun ipuin horiek argitaratzea?

— Ez, norberak gero eta gehiago eskatzen dio bere buruari; badira bere garaian ongi zeuden gauzak, baina horiek egun argitaratzeak lotsa emango lidake. Dena den, ez naiz inoiz idatzitakoaz damutu. Gauza bat idaztea da, eta beste bat idatzitakoa argitaratzea.

— Zer sentitu zenuen Zaino alemanieraz argitaratu zutenean?

— Alde batetik izugarritzko ezustekoa izan zen. Horretaz gain, harrotasuna sentitzen da. Beste



herrialde bateko jendeak zugan konfiantza jartzea, eta jatorrizko liburua beren hizkuntzara itzultzeko apostua egitea erabat pozgarria da idazlearentzat.

— “El cadáver de Porqueriza” eta “Zaino” eleberririk idatzi dituzue momentuz. Bietako zein duzu nahiago?

— Beti azkena. Horrela izan behar luke beti gainera; osterantzean, idazteak ez baitu zentzurik.

— Zein da liburu honen ildoak?

— “Zaino”n behe mailako jendearen artean gertatzen diren hilketa multiple batzuen istorioa kontatzen da. Polizia batek guztiaren atzean erotuta dagoen hiltzaile bat dagoela uste du, jendea adarkadez hiltzen baitu.

— Momentu honetan, baduzu eskuartearen ezer idatzita?

— Bai, “Zaino”ren estiloko eleberririk bat idazten ari naiz, eta dagoeneko erdialdean noa. Udaberrirako bukatzen saiatuko naiz.

“Irakurtzea eta idaztea, biak ditut gustuko. Batek ez du bestea kentzen”

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• “El Correo”k eta EHUK, kazetari lanetan aritzeko diru laguntza deialdia egin dute, azken ikasturtean kazetaritza ikasketak burutzen ari diren ikasleei zuzendua. Epea: abenduak 1.

• Nafarroako Gobernuaren eskutik, kirolaren zientzien inguruan ikerketak egiteko aurre-doktorego mailako diru-laguntzak. Epea: abenduak 2.

• Estatu espainiarreko edozein folkloreren inguruan ikerketak egiteko diru laguntzak. Epea: abenduak 30.

■ LANA

• Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatean, bi euskara teknikari lanpostu bete nahi dira. Epea: azaroak 23.

• Azkoitiko Udalerako idazkari bat behar da. Epea: EAOean argitaratu zain gelditzen da.

• Bakioko Udalak aparejadore bat behar du. Epea: EAOean argitaratu zain.

■ LEHIAKETAK

• Eibarreko Udalak bul-tzatuta, aukera berdintsunaren eta feminismoarekin lotuta, historikoki garrantzitsuak izan diren emakumeen edo haien jardurerarekin zerikusia duten izenak eraikin, kale edo plaza ipintzeko ideia lehiaketa. Epea: azaroak 27.

■ FANTASIA ETA BELDURREZKO ZINE MARATOIA

• Azaroaren 20an zine maratoia Amaia antzokian, gaueko 22:00etatik aurrera. Hiru film labur eta 3 film luze ikusteko aukera.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Bizkaia Etorbidea kalean, 14 - 3. ezk. Tel.: 943 79 22 92.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 499 01 05 (Milagros).

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

3. Errentan emateko

• Berriztutako etxebizitza alokagai, Arrasate erdian. Tel.: 990 26 72 63.

• Erdi aldean bakarrik bizi den emakume batek bi oheko gela bat alokatuko luke. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 79 21 30 (goizez) edo 943 79 82 43 (arratsaldez). Mari

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatuko genduke Arrasaten edo Aretxabaletan. Tel.: 943 79 20 61 (Ibon).

• Arrasate edo Aretxabaletan etxebizitza alokatuko nuke. Tel.: 943 79 39 78.

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasate edo inguruetako herrietan, bakarrik bizi edo etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 71 46 (Fernando).

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 94 445 10 71.

5. Etxeak osatzeko

• Mutil bat edo bi behar ditugu Donostian, etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 39 62.

• Ikasle batzuek etxebizitza alokatu nahiko genduke Arrasaten. Tel.: 943 79 79 38 (Danel).

• Gela bat alokatuko nuke Arrasaten edo pertsona bat falta zaien etxebizitza osatuko nuke. Tel.: 943 31 30 56. Gaueko 20:00etatik aurrera. Garikoitz

• Irakasle batek logela bat beharko luke, osatzeko dagoen etxebizitza batean. Tel.: 943 79 07 84.

• Bilbon pertsona baten bila gabiltza, ikasle etxebizitza bat osatzeko.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatuko
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otorlora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

Tel.: 943 79 28 05. (Iker).

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Hiru logela hiru pertsonarentzat, Arrasateko erdialdean. Tel.: 930 71 29 31. Arratsaldez.

• Gela bat alokatu nahiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 01 21. Mitxel. Gauez deitu.

• Logela bat behar dut ikaslez osaturiko etxebizitzan. Tel.: 94 683 00 86.

• Alokairuan hartuko nuke etxebizitza bat edo logela bat. Tel.: 943 18 03 78 (asteburuetan) eta 943 76 55 67 (asteazkenetan).

• Etxebizitza edo logela behar da Arrasaten. Tel.: 943 79 59 60 (lan orduetan).

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Urriburu kalean. Tel.: 943 79 45 58.

• Garajea salgai Jose Luis Iñarra pasealekuko 18.ean. 700.000 pta.

• Garaje itxia salgai Zarugalde kalean, 16.ean. 16m²koa. Tel.: 943 79 02 79.

19. Errentan emateko

• Uarkapen garaje itxia alokatzen dut. Prezio onean. Tel.: 943 79 84 35.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Garaje itxia salgai Kontezino inguruan. 18,9m² ditu. Tel.: 943 79 96 17.

• Kalealdean, baina Zarugaldeetik gertu 100m²ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 07 24.

15. Errentan hartzeko

• Gazte batzuek toki bat behar dute alokatzeko Musakolan ez den beste edozein lekutan. Tel.: 943 79 17

19. (Sergio, gaueko 21:00etatik aurrera).

• Neska talde batek toki txiki bat alokatuko luke. Tel.: 943 79 94 07 (Leire).

• Taberna alokatuko nuke Arrasate, Aretxabaleta edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 / 930 444 658

14. Errentan emateko

• 75 m²ko lonja bat alokagai Anbotu kalean. Tel.: 943 79 98 07.

LANA

17. Eskaintzak

• Emakumea prest etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 06 74.

• Neska prest umeak zaindu, etxeko garbiketarakin edo saltzaile bezala aritzeko. Tel.: 943 79 69 66. (Ainhoa).

• Andra euskalduna prest umeak zaindu, etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Esperientziadun andra gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 54 48.

• 40 urte inguruko emakumea prest pertsona nagusiak edo gaisoak zaintzeko. Bokazio eta esperientziaduna. Tel.: 617 20 59 49.

• Soprano profesionalak kantu eta ahotsezko eskolak ematen ditu. Tel.: 943 76 65 24.

18. Eskaerak

• Zerbitzaria behar da asteburuetan mahaia zerbitzatzeko. Tel.: 943 79 68 57.

• Emakumea behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 13 30 (20:00etatik aurrera).

• Emakumea behar da umeak zaintzeko. Tel.: 943 77 02 49 (20:00etatik aurrera).

• Pertsona euskalduna behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 79 21 46. (21:00etatik aurrera).

• Ile apaindegirako modeloak behar dira. Tel.: 943 77 09 44

• Esperientziadun sukaldaria behar da. Deitu 943 79 22 15 telefonora (asteartean izan ezik).

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingalaterrako lizentziadunak ingelesezko eskola partikularrak ematen ditu. Tel.: 919 54 64 64.

• Eskola partikularrak ematen ditut, euskaraz zein gaztelaniaz, prezio onean. Tel.: 943 79 79 35. Asier.

• Eskolak ematen dira: DBH 2.zikloa eta batxilergoa, matematikak erakusteko. Tel.: 943 79 08 59.

21. Eskaerak

• Eskolak hartuko nituzke gai haue-tan: programazioa, sistema eragile-ak eta sareak. Tel.: 945 44 51 56.

• Ekonomia alorreko matematika irak-
asle bat behar dut, Batxilergo LOG-
SE 2. mailan. Tel.: 943 79 39 62.

Ingeles eskolak hartuko nituzke osti-
al arratsaldeetan. *Advanced* maila.
Tel.: 943 79 16 63/943 79 47 68.

• Frantsesezko eskola partikularrak
hartuko nituzke. Tel.: 943 79 36 09
(Xabier).

• Neska bat behar da eskolak ema-
teko adineko bati. Tel.: 919 337 582
(Taniaz galdetu).

MOTORRA

23. Saldu

• BMW 318 i5.16v Coupe. 90 urtekoa.
140 cv. Zuria. VI-L matrikuladuna. Ego-
era onean. 120.000km. Prezioa:
850.000 pta. Tel.: 945 28 93 07.

• Peugeot 205 XR 3 ateduna salgai.
Gris iluna metaldun kolorekoa. Ego-
era onean. 225.000 pta. Tel.: 943
79 02 28.

• Opel Corsa 1.2 Swing salgai. Kolo-
re beltzekoa. SS-V. Tel.: 943 64 39
14.

• Kawasaki GPZ 400 F2 salgai. 94
urtekoa. Berri antza. maleta bat eta
bi buru babesarekin. Tel.: 943 79 63
79.

• Ford Scort XR3 (SS-AC) salgai, pre-
zio onean. Tel.: 943 71 44 45.

• Hyundai Coupe salgai. 1.600 cc.
16 v. 114 HP. 97 urtekoa. urte ter-
diko garantia ofizialarekin. 33.000 km.
Tel.: 930 22 80 85 (Jesus).

• Peugeot 106 salgai. Tel.: 943 79
67 12 / 943 79 75 93.

DENETARIK

26. Saldu

• Pentium 133 ordenagailua salgai.
Giga bateko disko gogorra. 15 hatze-
ko monitorea. Inprimagailua. Windows
98. 32 mega RAM. CD Rom. 100
wko bozgoragailuak. Office 97. Tel.:
943 78 14 72.

• Bi oheko logela osoa salgai oso-
oso merke. Tel.: 943 79 89 07

• Bulegorako altzariak salgai. Egoe-
ra onean. Tel.: 943 79 84 35.

• Flex markako literak salgai. Egoe-
ra onean. Prezioa 30.000 pta. Tel.:
943 79 57 64.

• Argazki makina salgai. Minolta X-
300. Tamron 28-200 objektiboa. Star-
biltz flash-a. Tel.: 943 88 16 08. Arra-
tsaldez edo gauez.

• Zerrajerako egurrezko berogailu
zahar bat erosiko nuke. Tel.: 943 79
11 24 (Ramon).

29. Eman

• Gorpil-aulkirik, taka-takarik edo
makulurik badituzu eta ez badituzu
behar, beste pertsona batzuek bai.
Harremanetarako telefonoa: Bego
Falces. Osakidetzako gizarte-lagun-
tzaillea. Tel.: 943 77 03 46/943 77
12 37.

31. Galdu

• Pasa den ostiralean argazki album
txikia galdu genuen Mikel Lasa ase-
guru etxearen eskaileretan. Aurkituz
gero, deitu mesedez telefono hone-
tara: 943 79 90 91 (Nerea).

• Maritxu gauean Osorik tabernan
gizonezko trajearen jaka urdin iluna
galdu nuen. Aranburun egindakoa da.
Aurkituz gero, deitu mesedez. Tel.:
943 79 43 59.

• Graduatutako betaurrekoak galdu
ditut Urkulun, zorro eta guzti. Tel.:
943 79 10 39

32. Aurkitu

• Ordularia agertu da Sokoia taber-
nan. Real Madrیدهkoa da. Tel.: 943
77 00 89 (Monika).



**Zatoz eta
ezagutu
gaitzazu!**



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Auto Suecia



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



**MITSUBISHI
MOTORS**

Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxe: 943 79 65 65

Aurreikuspen
planak


"Esaidazu nolakoa
zaren eta zure
Aurreikuspen Plana
zein den esango
dizut"

Aurreikuspen Plan
MODERATUA

Aurreikuspen Plan
MISTOA

Aurreikuspen Plan
ALDAKORRA

Euskadiko Kutxan zure
bizitza-estiloari ondoen
egokitzen zaion
Aurreikuspen Planari
buruz aholkatzen zaitugu.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun
zuzena

EUSKADIKO KUTXAK

aurreikuspen
planen
eskaintza
handitu egin
du.

▪ **Euskadiko
pentsioak**
Gorabeherarik
gabeko
errentagarritasuna
lortu nahi duten
pertsontzat.

▪ **Euskadiko
pentsio mistoa**
Gehienez ere
inbertsioaren %30
errenta
aldakorrean izatea
aurreikusita dago.

▪ **Euskadiko
pentsio
aldakorra**
Inbertsioak
gehienez ere
%40 errenta fijoan
eta %60 errenta
aldakorrean egiten
dira.

Posible da dirua
batetik bestera
aldatzea.

Zoaz gaur
bertan zure
sukurtsalera
zure premiei
hobeto
egokitzen zaien
planari buruzko
informazioa
jasotzera.

Bidaia birtuala ATBrekin

Bidaia zaleak direnek Yemenera bidaiatzeko aukera paregabea izango dute aste hone-tan, etxeko besaulkitik mugitu gabe gainera. Izan ere, Garikoitz Kortazarrek Yemenera txangoa egiteko aukera jarriko digu eskura asteartean, iluntzeko 21:30etan.

Iñaki Saiz oñatiarra ekarriko du gonbidatu gisa. Iñakik, beste hainbat euskal herritarrekin batera, 16 eguneko zeharkaldia egin zuen abuztuan Yemen osotik zehar. Bidaia lurrototako ibilgailuetan egin zuten, eta ziur aski, izango du zer kon-taturik ATBko Munduari Bueltak saiorako bidaiazale oñatiarrak.



Alkatearekin Berbetan datorren asteazkenean izango da.

ALKATEAREKIN BERBETAN

Asteazkenean, berriz, Arrasateko alkatea etorriko da ATBko platora albistegiaren ondoren. Joxe Aranzabal Arkoko erredakzio buruak

moderatuko du saioa. Harekin batera, Martin Calvo Extrako zuzendaria izango da, galderak egiten Joxe Mari Loitiri. *Alkatearekin Berbetan* urtean birritan egiten da. Ostegunean, berriz, Herri

Irratiko esataria ere baden Alberto Gorritibereak *Ekilan* saioa aurkeztuko du. Honen ondoren, musika gustuko dutenek *Soinuz Blai* programa izango dute ATBn.

Ostiralean, asteari bukaera eman eta asteburuari ongi etorria eman baino lehen, astean zehar berrietan hizpide izan diren gairik nagusienak jorratuko ditu *Astebete* saioan Mainer Osak.

Honen ondoren, berriz, Aurreko egunean *Soinuz Blai* musika saioa ikusentzuteko aukerarik izan ez zutenek, berriro izango dute pantailan Iban Gonzalezek aurkeztuko duen programa.

Era guztietako bidaiak Arrasate Telebistan.

■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 14

13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:
Musiklasik, Mahai ingurua, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.

IGANDEA, 15

13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:
Musiklasik, Mahai ingurua, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.

ASTELEHENA, 16

13:30 Albiste aurrerapena
Zigor Txurruka lankideak aurkeztua.
13:35 Astebete (Errepika).
20:00/20:30/21:00 Berriak.
21:30 Mondrasport
Itxaro Zubillagak aurkeztuta.



Itxaro Zubillaga.

ASTEARTEA, 17

13:30 Albiste aurrerapena.
13:35 Mondrasport (Errepika).
20:00/20:30/21:00 Berriak.
21:30 Munduari Bueltak.
Yemen izango dute hizpide Garikoitz Kortazar eta Iñaki Saizek.

ASTEAZKENA, 18

13:30 Albiste aurrerapena.
13:35 Munduari bueltak (Errepika).
20:00/20:30 Berriak.
21:00 Alkatearekin berbetan.

OSTEGUNA, 19

13:30 Albiste aurrerapena.
13:35 Alkatearekin berbetan. (Errepika).
20:00/20:30/21:00 Berriak.
21:30 Ekilan.
Alberto Gorritibereak aurkeztuta.
22:00 Soinuz Blai.
Iban Gonzalezek



Iban Gonzalez.

OSTIRALA, 20

13:30 Albiste aurrerapena.
13:35 Ekilan (Errepika).
20:00/20:30/21:00 Berriak.
21:30 Astebete.
22:00 Soinuz Blai. (Errepika).




Urbaltzatik urakekarri zireneko argazkia da hauxe. 1956ko irailaren 26koa. Orduan gobernadore zen

Garicano Goñik ireki zuen txorroa, urak heldu zirenen adierazle. Alboan, On Jose Luis Iñarra parrokoa dauka. Horrelako ekitaldietan, beti egoten zen elizaren ordezkari- riren bat. Betaurrekoduna On

Julio Otadui da, garai hartan Mondragoeko alkate zena. Eta gobernadorearen eta alkatearen erdian dagoena, Foru Aldundiko presidentea zen Jose Maria Caballero.

Berriemailea:
 Arrasateko Udaleko
 artxiboa

Etxe Aundi
 Hotela**  Jatetxea



*Gaur ez bada, bihar ezkonduko zara ...
 Etxe Aundin zure zain gaituzu.*

Ospatu zeure ezkontza Etxe Aundi jatetxean (250 lagunentzako aretoak)

Kontsulta itzazu 1998rako menu berriak, ezkontzako opari batekin txundituko zaitugu

Torrauzo, 9 • OÑATI
 Tel.: 943 78 19 56 • Faxa: 943 78 32 90



T textil agirrezabal A

AIT-ITV eta autobus
geltokitik 100 metrora

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak



DENDA BERRIA!

Gotzon Agirrezabal

Tel./Faxa: 943 76 72 52

ORDUTEGIA

astelehenetik zapatara:
10:00-13:00 eta 16:00-20:00.



Amillaga 5 • BERGARA • Renault-en ondoan



Montura

PREVISION²

Lente progresiboak

19.900 pta*

**Kalitatea
saltzen
dugu.**

INSTITUTO OPTICO
Erdiko kale, 22
20500 **ARRASATE**
943 79 71 68

INSTITUTO OPTICO
Hiper Eroski
20500 **ARRASATE**
943 79 78 26

OPTICA GARAGORRI
Iturriotz, 29
20500 **ARRASATE**
943 79 16 98

INSTITUTO OPTICO
Andra Mari, 8
48200 **DURANGO**
94 6202986

INSTITUTO OPTICO
Grupo San Ignacio, 3
48200 **DURANGO**
94 6818492

INSTITUTO OPTICO
Erdiko kale, 21
20830 **MUTRIKU**
943 60 31 54

**Irakur ezazu geure Eskaintza
arreta handiz
edo garesti ordainduko duzu!!**

* Edozein graduazio. 1998ko azaroaren 30era arteko eskaintza.

M MUGARRI

**Focus Tour autoan, sekula ikusi gabekoa ikusiko duzue
...eta ez da eredu bat**



Benetan berria den zerbait ikusi nahi baduzu, hurbil zaitez Focus Tour karabanara.

Azken aldiko autorik iraultzaileena aurkituko duzu. Eta ez da eredu bat. Igo eta miresteko aukera izango duzu, eta baita gidatzekoa ere.

Munduko Focus handiena ikusi nahi baduzu, ez ezazu Focus Tour ezagutzeko aukera gal.

Zatoz sekula ikusi gabekoa ikustera. Ez diezazula beste batek kontatu.



Mugarrik

Abenduaren 22an eta 23an
gonbidatzen zaitu

Maiatzaren 1, enparantzan (San Andres auzoa)
goizeko 9:00etatik arratsaldeko 21:00etara